

"Koloneko minbizian elikadura da erabakigarria"



Maider Sierra
Minbiziaren Kontrako Elkartea | 8

Urteko kirolari onenei sariak gaur Oñatin

Oñati Kirol Sariak banatuko dituzte, 19:00etan | 17

Urgain aurkeztu dute, Oñatiko eskola publikoaren irudi berria | 16



Aramaiok badu aguazila, astelehena ezker | 26



Egoitz 'Pikategi'-k defendatuko du Oñati Toberan, abenduaren 28an | 31



PERTIKA SALTORIK HANDIENA

Malen Ruiz de Azua arrasatearrak Espainiako errekorra ondu du pertika-saltoan: 3,86 metro da orain gainditu beharrekoa. Abenduaren 27an lehiatuko da azken aldiz gazte mailan, Donostian. | 28

Malen Ruiz de Azua, Jonathan Perez entrenatzailea eta Istar Dapena, eguaztenean, Mojatagin.

XABIER URTZELAI

SINADURAK

	IÑAKI CASAS 5
	5 LARRAITZ ZEBERIO
	NESTOR ARANA 24
	26 ANDER ELORTONDO
	AGURNE BARRUSO 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 5 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Abenduaren 24an astelehenkoa, abenduaren 28an urtekaria, eta urtarrilaren 7an 2013ko lehen zenbakia



Astelehenean argitaratuko dugun zenbakiaren ondoren, hilaren 28an Debagoiena 2012 urtekaria jasoko duzue etxean. Hurrengo GOIENA urtarrilaren 7an, astelehena, argitaratuko dugu. Urte berri on!

DEBAGOIENA
2012
URTEKARIA

Etxegabetzeen kontra Aretxabaleta aitzindari

Etxe-husteen kontra jarduteko protokoloa abiarazi du | 11

Parte-hartze prozesua, hondakin bilketaren harira

Bergarako Udalak bideratuko du, urtarrilean | 20

Passat Alltrack berria



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto.

Carrefour GORBEIA



Abenduaren 24ra arte

OPARIA

%8*

DESKONTU TXARTELA -ko ERREGAIETAN

*60 € baino gehiagoko erosketengatik. Club Carrefour zure txartela aurkeztuz edo PASS Visa zure txartelaz ordainduz. Urartea kalea - 23 (Albarra izkina), Foronda, Zurbano eta Arrasateko AVIA zerbitzuguneetan trukagarria.

Euskalmeten lehenengo misioa, babesa

- Larrialdi eta meteorologia zerbitzuak bat dira
- Aurreikuspenekin batera, zaintza aktibatzen da
- 100 estazio automatizatu ditu Euskalmetek



Jose Antonio Aranda, Euskalmeteko arduraduna, Punta Galean. | EUSKALMET

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bihar ze eguraldi egingo duen jakiteko baino askoz gehiagorako balio du Euskadiko sare hidro-meteorologikoak. Ehun estazio osatzen dute, zeharo automatikoak dira denak, eta egun osoan datuak bidaltzen dituzte etengabe Euskalmeten egoitza zentralera, Gasteizera. Datu horiek, bereziki, gauza baterako balio dute: egoera arriskutsuak garaiz aurretateko eta behar diren babes neurriak hartzeko.

Euskalmeten arduradunak, Jose Antonio Arandak, honela azaltzen du: "Filosofia ez da klimatologia perfektua ateratzea edo klima-aldaketa lantzea, baizik eta une bakoitzean zer gertatzen dabilen jakitea, arazoak saihesteko. Zer gertatzen dabilen baldin bada kigu, nola jokatu erabaki dezakegu". Horregatik, gaur egun, Euskalmet eta Euskadiko larrialdi zerbitzuak, biak, bat direla esan daiteke; hala, Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren marka da Euskalmet.

Debagoienean lau estazio ditu: Elorregin, Zubillagan, Urkulun eta Arrasaten, hilerri ondoan, hain zuzen ere.

Datua, herritarren esku ere

Euskalmetek Euskadin eguraldiaren gainean dagoen informazio osoa eta handiena jasotzen du:

"Estazio bakoitzak sentsore batzuk ditu, eta horietako bakoitzak 10 minutuan behin bidaltzen digu momentuko datua. Horrela, egunero, 144 tenperatura-datu, haizearen norabidearen gaineko 144, prezipitazioaren gaineko 144, presioaren gaineko 144... dauzkagu. Parametro askoren gaineko 144 datu jasotzen ditugu egunero".

Bada, datu horiek jendearen esku daude lehenengo momen-

tutik, Euskalmeten egoitzara ailegatzen diren momentutik, alegia: datu-base baten kargatzen dituzte eta edozeinek kontsultatu ditzake. Hala, Arrasateko estazioak neurtu berri duena ikusi gura duenak www.euskalmet.net webgunean sartu besterik ez du. Hori bai: "Kontuan hartu behar da Euskalmeten datuak beti ordutegi unibertsalean, UTC ordutegian ipintzen

ditugula, erlojua aurreratzen edo atzeratzen dugunean datu bikoitza egon ez dadin edo ordu oso bat datu barik pasa ez dadin", esaten du Arandak. Horrela bada, neguan, momentu bakoitzeko datua ordu bete atzeragokoa balitz bezala ikusiko dugu, eta udan, bi ordu atzeragokoa balitz bezala.

Eguraldiaren gaineko informazioa asko eskatzen eta kontsultatzen da. Hala, Euskalmeten webgunea da, askogatik, Eusko Jaurlaritzaren webgune bisitatuenak. Hilero milioika bisita ditu.

Informazio zerbitzua osatzeko, Twitterren [@euskalmet](https://twitter.com/euskalmet) profila ireki dute. Informazioa jaso eta berehala zabaltzeko erabiltzen dute, eta "oso pozik" daudela dio Arandak.

Denen artean, sare on bat

Euskalmetek bere misio nagusirako, babeserako erabiltzen du informazio hori. Horregatik, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Zuzendaritzak eta, beste aldetik, Meteorologia eta Klimatologia Zuzendaritzak bat egin zuten, eta biak Herri-zaingo Sailaren barruan geratu ziren.

Bigarren, Euskadiko diputazioekin elkarlan handia du Euskalmetek, eta hortik etorri da sare hidrologikoa eta sare meteorologikoa bat egitea.

Horiez gain, Ura Agentziarekin dihardu. Zehaztapen gehiago ematen ditu Jose Antonio Arandak: "Ura Agentziarekin asko lantzen gabilta orain ARPSISak, uholde arrisku potentzial esanguratsua duten zonaldeak. Zonalde kritikoetan une bakoitzean ze egoera dagoen jakitea datza lana; horretarako, oraingo sarean integratuko diren sistemak muntatu nahi ditugu, leku bakoitzean ze arazo dagoen jakiteko eta ordu gutxian aurreikuspenak egiteko: momentu baten botatzen dabilen euriarekin, ibai-arro jakin horretan eta ibai horrekin ze arazo izan daitekeen jakiteko, alegia".

Beste erakunde batzuekin ere harreman handia du Euskalmetek: Aztirekin, ozeanografia lantzeko.

Helburua hau da, Euskalmeteko arduradunaren hitzetan: "Erakunde guztion artean, gero eta sare hobea izatea; sare operatiboa eta bat-bateko informazioa ematen duena".

Estazio guztiak ez dira berdinak. Debagoieneko Elorregikoa, Zubillagokoa eta Urkulukoa Foru Aldundiarekin muntatu zituen Euskalmetek, eta batez ere hidrologia parametroak neurtzen dituzte: uraren lamina eta une bakoitzeko emaria eta beste parametro fisiko eta kimiko batzuk. Horrez gain, meteorologia parametroak neurtzen dituzte beste sentsore



Arrasateko estazio meteorologikoa, San Kristobalen. | LEIRE KORTABARRIA

Oihana Kortazar

Punta-puntako enpresak METAPOSTAn daude. Eta zu, zeren zain zaude?

Zure dokumentu-gordailu elektronikoa, zure postontzia sarean

Alta hartu doan eta iPad Minia irabazi



batzuek: zenbat euri egiten duen, ze hezetasun dagoen, ze tenperatura dagoen...

Arrasateko estazioa Udalarekin batera muntatu zuten, eta atmosfera nola dagoen jakiteko informazioa bidaltzen du Euskalmetera: hezetasuna, hezetasun erlatiboa, euria, haizearen zazpi aldagarri, zenbat eguzki-energia jasotzen dabilen...

Terrenoa ezagutu behar da
Euskalmetek egiten dituen aurreikuspenak eta iragarpenak, batez ere, babes-sistemak aktibatzen dira. Bestetik, eguraldi-iragarpenak jendea informatzeko ere erabiltzen dira.

Horretarako, alde batetik, eredu batzuk erabiltzen ditu Euskalmetek, leku bakoitzak ze klima

duen eta meteorologia-egoera tipo bakoitzean nola jokatzeko duen laburtzen dutenak. Baina horiek "ez dute dena ikusten", dio Arandak. "Eredua tresna informatiko, matematiko eta fisikoekin dago eginda, eta errealtate batera gerturatzen modua da. Ez digu zer egingo duen esango, zer egin dezakeen baizik".

Horregatik, terrenoa ezagutzen duten adituekin kontaktatzen du Euskalmetek. Izan ere, "bailara bakoitza, ibai-arro bakoitza, mendi ostea edo mendi aurrea... bakoitza modu batekoa da", esaten du Jose Antonio Arandak. Jakituria horrek ereduak esaten dutena konfirmatzeko edo ezeztatzen balio du. Hala, Debagoienaren adibidea ipintzen digu: "Iparraldeko euriak asko zigortzen zaituztete Debagoienean, ekialdeko ukitu oso-oso xumearekin; esan daiteke zeharo iparraldeko euriak direla". Beste leku batzuetan, ipar-mendebaldeko euriak dira tipikoak; haran batzuetan beste batzuetan baino samurrago pilatzen da euri-ura...

Ereduarekin eta ezagutzarekin, iragarri egiten da zer gertatuko den. Hori egin eta gero, "zaintzea oso-oso garrantzitsua da, berdin guk iragarritakoa gertatzen baldin badabil zein ez; lehenbailehen hartu behar dira neurriak; adibidez, guk iragarri baino euri gehiago egiten baldin badabil; edo elurra non botatzen dabilen abisatu zaintza zerbitzuei...", esaten du Euskalmeteko arduradunak.

Aukera guztiak, kontuan
Tresna horiekin guztiekin ere, ez dute beti ondo asmatzen. Arandak esaten duenez, "iragarpen bat ere ez da guztiz ziurra". Eta honakoa azpimarratzen du: "Guk probabilitate handieneko iragarpena egiten dugu beti, beti". Baina probabilitate txikiena duen egoera ere ez dute bistatik galtzen, hori ere egia bihurtu daitekeelako. Izan ere, Arandaren hitzak errepikatuz, "atmosfera oso kaotikoa da, eta iragarpen guztiak ez dira betetzen".



Euskalmeten egoitza nagusia Gasteizen dago. | EUSKALMET

75 URTEURRENA

APROBETXA ITZAZU BERE ABANTAILAK TOYOTA GAMA OSOAN

Examan osoa Toyota beti aukeratu hurrenerarekin

Finantzazko berritasuna

Garantia luzea

7 urteko arazoak

5 urteko

Auris 2012 likidazioa. 0 km-ko 10 auto

12.700 € eurogatik (Pive plana barne)

Garantia: 3 urte + 2 urte autoa Toyotako Euskoautorekin finantzatuz gero

4 ARBAGAK

EGONKORTASUN-KONTROLA

LABURZKO BOLANTEA

AIRE GIROTUA

HONEKATZA-KITATASUNA

ATZERAKO (GILU) ELEKTRIKOAK

ETA ASKOZ GEHiago...

EuskoAuto

www.euskoauto.toyota.es

BERGARA
Olabarrena, 2/g
Tel: 943 762 385

ELGOIBAR
Olaso industrialdea
Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417

PASAIA ANTZO
San Markos errepidea 32
Tel: 902 345 245

OLABERRIA
Karobi industrialdea
Tel: 943 805 926

TOYOTA
HARRERAKO ARLOA

Batez besteko kontsumoa (l/100 km): 4,5. CO2 igorpenak (g/km): 118.

Hauetako bakoitza: BEZa, garapen, multikulturazko, promozioa, kontsumoaren eraginea, 3 urteko garantia edo 100.000 km (lehenago gertatzen dena), beste lekuetako Erretaxen garanta gehigarria, 3 urteko errepikatzen laguntza eta Pive plana. Pintura metalizatua ez dago baimen. Ekipatuta balagaria, izanik agurtu arte, rotoaren dardara ibilgailuaren bakanak. Promozio hau ez da metagaria beste edukiak edo deialak biltzen. Erretaxen hurrengo berritasunak dira ibilgailuaren bakanak eta ibilgailuaren bakanak. Batez besteko kontsumoa (l/100 km): 4,5. CO2 igorpenak (g/km): 118.

Familiarrean zaudete.

Debagoieneko Kirol Txartela, kirol jarduna errazteko

Helburua da kirol jarduna gure ibarrean sustatzea; Plus eta Premium txartelak daude aukeran

JOKIN BEREZIARTUA | DEBAGOIENA

Datorren urteko Debagoieneko Kirol Txartela –DKT– aurkeztu zuten atzo, eguna, Mankomunitatean, eskualdeko kirola sustatzea helburu duena. Plus eta Premium txartelen ezaugarriak jakinarazi zituzten, eta gaineratu zuten, besteak beste, kontrako agindurik ezean, txartelonek jabeek automatikoki berrituko dituela abonua.

Egun 381 erabiltzaile ditu Plus txartelak, eta 185 Premium delakoak. Arrasate, Bergara, Oñati eta Eskoriatzako kirol instalazioetan erabili ahalko da txartela.

Leintz Ibarra, Oñati eta Bergara

DKT Plus txartelaren jabeek honako kiroldegietan sartzeko aukera ematen du: Eskoriatzako Manolo Muñoz kiroldegian, Oñatiko Zubikoan, Arrasateko Musakolako kiroldegian –eremu lehorrean zein bustian– eta Bergarako Agorrosin kiroldegian –bainuetxe eremua izan ezik–. Hala, ikastaro eta alokairuetan abonatuaren prezio bera izango dute.

Bestalde, DKT Premium txartelaren erabiltzaileek aurrez azaldutako DKT Plus txartelak dituen zerbitzuekin batera, Ber-



Askasibar, Ezpeleta, Martin eta Askargorta Debagoieneko kirol txartela erakusten.. | J.B.

garako Agorrosingo bainuetxea erabiltzeko aukera izango dute.

Non eskatu

DKT txartelak urteko abonua eskaintzen du. Txartela egin nahi duenak eskaera erroldatuta dagoen herriko kirol instalazioan egin beharko du. Era berean, txartela egin gura duen herritarrek bere

herrian kiroldegirik ez balu gehien erabiliko duen kiroldegian egin beharko du eskaera.

Ezaugarriak eta prezioak

Bestalde, DKT txartelaren adin tartekak honakoak dira: Umetxoak: 2011tik 2013ra jaiotakoak, biak barne; Ume eta gazteak: 2010-1995 jaiotakoak, biak barne (125,20

euro, Plus); Helduak: 1994an edo lehenago (212, 80 euro (Plus) eta 256,35 euro (Premium); familia unitatea: 1995ean edo berandua-gojaiotakoak 388,50 euro (Plus) eta 462 euro (Premium).

Mankomunitateak abonuen prezioa %5 garestitu du. KPIaren eta BEZaren igoeraren arabera egin dute aldaketa.

Uribetxeberriaren omenalia, pribatua, epailearen ustez

Pablo Ruiz Auzitegi Nazionalako epaileak atzera bota du Terrorismoaren Biktimen Elkarteak Josu Uribetxebarria Arrasateko preso ohiari jarritako salaketa. Elkarte horrek Uribetxeberria Arrasatera heldu zeneko harrera ekitaldian terrorismoa goraipatu zela ondorioztatuta salaketa jarri zuen. Bada, Ruiz epaileak ekitaldi pribatua izan zela uste du.

Zabor-bilketan aldaketak, Gabonak direla-eta

Mankomunitateak iragarri duenez, hilaren 24an eta 31n –biak astelehenak– zabor-bilketak zerbitzua gauean egin beharrean eguerdian egingo da Debagoiena osoan eta, beraz, egun horietan zaborra 13:30erako atera beharko da. Bestetik, 24an eta 31n baita ere, Antzuolan, gauean ez da ontzirik atera behar, ez delako zerbitzu hori emango.

Axerikua zubia gaur arratsaldean (barikua) zabalduko dute

Ezustekorik ezean, gaur arratsaldean zabalduko dute Arrasaterako sartzeko lehen sarbidea, Eroskitik aurrera doana. Era berean, zabaldu egingo dute, baita ere, Aretxabaletatik Arrasaterako noranzkoan dagoen ospitalerako sarrera. Biak ala biak, udaz geroztik itxita izan dira, zubi berri bat eraikitzeak obren ondorioz.

Deia, erosketak bertan eta kreditu txartel barik egiteko

ENKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Kaleratzeak-Stop Desahucios Debagoiena taldeak gonbita egin diete herritarrei bertako denda txikietan erosketak egin dezaten eta kreditu txartelarekin ordain ez ditzaten. Horretarako, *Gabon hauetan krediturik ez!* izeneko kanpaina abiatu dute.

Bankuen "biktima"

Lortu nahi dute bankuek eta kutexek ez jasotzea kreditu txartelen erosketekin jasotzen dituzten komisioak. "Honen bitartez lortzen dugu, batetik, komertzio txikia laguntzea; izan ere, hauek ere finantza erakunde politiken biktimak baitira, eta, bestetik, bankuen jokaeren aurkako keinu bat egiten da, hipotekari aurre ezinean dabiltzan eta etxea galtzen duten herritarrek babes-tuz", diote.

Begiak ezin itxi

Era berean, diote, etxegabetzeen aurrean ezin direla begiak itxi. Eta, gogoratzen dute, 2012an, etxegabetzeen gaineko auziak %134 hazi direla eta egoera larrian dauden herritarrek geroago eta gehiago direla. Horren aurrean, Gabonetan erosketak diru metalikoarekin ordaintzera eta herriko denda txikietan egitera animatzen dute jendea, eta, era honetan, bankuek komisioak jasotzea saihesten delako.



Saridunak, bizikletekin, eta Soraluceko ordezkariak.. | SORALUCE

Lau bizikleta opari Soraluce eta DRSk, Euskararen Eguna ospatzeko

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Danobat Taldeko DRS eta Soraluce kooperatibetako Euskara Batzordeak, Euskararen Eguna-ren harira, Soraluzeko eta Bergarako eskolek umeen artean eta kooperatibako bazkideen seme-alaben artean lau bizikleta zozketatu zituen, Euskararen Eguna ospatzeko. 700 ume ingururen parte-hartzea izan duen lehiaketa baten bidez, "euskaraz ere lan egiten dutela" gizarteratu nahi izan dute Euskararen Egunean DRSk eta Soraluce.

Makina-erreminta, oinarri

Makina-erremintarekin lotutako hainbat ariketak egin behar izan zituzten haurrek; Danobat Taldeak interneten jarri duen hiztegia erabili behar zuten.

Argazkian, Andoni Korkostegi euskara koordinatzailea, Lino Alberdi lehendakaria eta saridunak: Plaentxi Herri Ikastetxeko Hodei Valdivieso, Mariaren Lagundia Ikastetxeko Amaia Alonso, Aranzadiko Martin Arrillaga eta Iker Urkiri, Soraluce kooperatibako bazkidearen semea.

Bi Q sari Debagoienera etorri dira

Euskalit Fundazioak Merkataritza Bikainaren sariak banatu ditu Donostian. Saritutakoan artean, Bergarako Soraluce kooperatibak Urrezko Q saria jaso zuen eta Arrasateko Interesport Loramendik (argazkian), Brontzezko Q sari urdina.



INTERSPORT LORAMENDI

Sare elektriko adimenduei buruzko mintegia, MUñ

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Konpainia elektrikoaren azken kontsumitzailearen arteko harremanak aldatzen ari dira gaur egun, sare elektriko adimendun edo SmartGrid-ei esker. Hori dela eta, Mondragon Unibertsitateak mintegi bat egin zuen eguaztenean Garaian, Energiaren Clusterraren laguntzarekin. Sare adimendun edo SmartGrid-en inguruko kontzeptu orokorrak, sare elektrikoan aurreikusitako eboluzioa eta aldaketak, eta horien garapena bultzatzen duten teknologia nagusiak azaldu zituzten.

Adimendua

Izan ere, ohiko sare elektrikoa bilakatzen ari da eta, eta horren ordeztasunari den sareak informazioa ulertu, barneratu, landu eta erabiltzeko gaitasuna izango du, informazio eta komunikazio teknologiei (IKT) esker. Hala, argindarra banatzeko sareek helburu horiek lortzeko ahalmen handia dute, sare adimendun edo SmartGrid-en garapenari esker. Hala, hobeto kontrolatu ahal izango dira muturreko kargak eta energia-eraginkortasuneko programak. Gainera, eskariaren kudeaketa lagungarri izango da erabiltzaileak kontzientzia hartzeko, etxeko faktura elektrikoa murrizteko aukera emango baitio.

ZABALIK



IÑAKI CASAS
http://goiena.net/iritzia/

Olentzero

Abendualdiaren lehen eguna: prestaketa espirituala egiteko garaia Jesukristo *gure jaunaren* jaiotza ospatzeko; eta XXI. mendean, kasu askotan, Olentzeroren etorrera iragartzen duena, eta kito!

Gaueko bederatzia dira. Txikiak ohean daude. Maite eta Josetxo jangelako mahaiaren bueltan elkartu dira. Gertu daude. Ordenagailua, piztuta. Excel taula, zabalik. Kalkulagailua, *on*. Merkataritza-gune handietako liburuxkak, gertu, nahiko zimurtuta eta txikiek gura dutena markatuta; logistika, prest.

Aurrera, diote, pozik. Beste urte batez, Olentzerori aholkatzeko unea iritsi da; izan ere, gero eta enkargu gehiago ditu, eta gure ikazkin gaixoa ez da guztietara iristen.

Eszena hori euskal etxe askotan gertatzen da; besterik agian ez, baina solidario hutsak gara umeei zoriontasuna banatzen dienaekin.

Aurrera, dio Josetxok. Aitaita-amamen etxean zer eskatu behar dute bilobendako? Monster High batzuk eta Lego bat. Ederto, horiek Olentzerok Eroskin eta Toys'R'us-en ditu merkeago. Eginda. Hurrengoa. Eta zure ahizpa *arraroaren* etxean? Oraindik ez daki. Betiko moduan... gero, azken unean ibili beharko dugu. Eta zure anaia *miragarriarenean*? PSP bat eta bizikleta bat. Zoragarri! Horiek El Corte Inglesen eta Forumen ditu Olentzerok. Gasteizera joan beharra dago.

Josetxo, gogorarazten du Maitek, eta hemen zer eskatu dute txikiek? Liburuxketan markatuta daukazu. Ados. Bada, ze Olentzero egin erabaki beharko dugu; bestela, leher eginda eta sosik gabe amaitu behar du-eta.

Segundo bat!, berriro erasora Maitek. Eta guretako zer eskatu behar diogu? Kuleroak, eta kito! Ikazkinaren baserriko behia ez dago-eta esne gehiagorik emateko. Horrela moldatzen dira familiako 300 euro gutxiago gastatu behar ditugun dioten aurreikuspenetara. Eguberri on!

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

Erroldarik gabeko etorkinak

Zapatua. Ateneo batean etorkinendako festa dago. 50 bat lagun elkartu dira. Mahaitxo batean etxetik ekarritako gozoak ipini dituzte, eta musika taldea ere etorkinek osatzen dute. Arduradunarekin bi hitz egiteko aukera izan dut: "Erroldarik gabeko etorkinak dira. Apenas jasotzen dute laguntzarik, gero eta gehiago baitira erroldarik gabekoei laguntzarik ez ematea erabaki duten erakundeak". Eta sorpresaz entzuten ditut zenbait izen. "Zerrendatuta ez daudenez, beldur dira etorkinek laguntza toki bat baino gehiagotik lortzea. Pobreek engainatuko gaituzten beldur handia dugu", dio. Eta egia da. Beste perfil batekoak dira delitugile handienak.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Eztanda bat entzun orduko haize beroak laztantzen gintuen

Irati Sarasua Arabaolaza
http://argia.com/blogak/irati-sarasua/

Ni Luis Iriondo naiz. 89 urte ditut eta Gernikako bonbardaketa bizi izan nuen. Hamahiru urte nituen orduan.

Ama, aita eta hiru anai-arrebeekin bizi nintzen familia umil batean, aitak ikaztegia zuen eta amak altzairu denda.

Gerraren berri hondartzan izan nuen lehen aldiz.

Hori gertatu eta denbora gutxira jakin genuen Gernikatik hurbil zeuden herri batzuk bonbardatu zituztela, besteak beste, Durango.

Horrek eragina izan zuen herritarrengan, berehala, badaezpada, babeslekuak eraikitzen hasi ziren.

Denon ahotan zegoen. Apirilaren 25ean, esaterako, nire lagun Ciprik esan zidan bazuela babesleku bat

bonbardaketa baterako prestatua, eta gertatzen bazen korrika hara joateko.

Hurrengo egunean bankura joan nintzen, eta bertan nengoela kanpai soinua entzun nuen. Hegazkinen abisua zen, gertu zeuden, agian gainean.

Hala zen, herriaren gainean zeuden.

Laster alde egin nuen bankuko langile batekin babesleku bila.

Merkatua egiten zen gunea pasa bezain laster hasi ziren eztandak. Jendea korrika oroitzen dut, oihuka.

Eraikitako gune haiek lur azpian zeuden, eta horietako batean sartu ninduten, bultzaka. Sabai baxua zuen eta bero handia egiten zuen, horren ondorioz, minutu batzuen buruan arnasa hartzea ere kostatzen zitzaigun. Makurtzeko esan zigun bertan zegoen gizon batek, behealdean oxigenoa hartzea errazagoa zelako, eta hala egin genuen.

Cipri, nire laguna, oroitu nuen han egon nintzen denbora osoan; hegazkinak ikusten ariko zen aurreko egunean esan zidan txokoan, inbidia ematen zidan hori pentsatzeak. Hurrengo egunean eskolara joatean berak ikusitako guztia kontatzeko aukera izango zuelako nik ez bezala.

Eztandak amaitu zirenean kalera irten ginen, baina berehala hasi ziren berriro ere.

Jendea korrika zebilen batetik bestera leku seguru baten bila. Gero eta gertuago entzuten zen bonben soinua.

Eztanda bat entzun orduko haize beroak laztantzen gintuen.

Errezatzeari ekin nion, baina hegazkinek alde egingo ez zela zirudien.

Amaitu eta kalera irten nintzenean beldurtu egin nintzen.

Herri osoa sutan zegoen eta zerua hodei ilun batek estaltzen zuen. Ez nekien betiko amaitu ziren bonbardaketak ala ez, eta lasterka joan nintzen Lumoko errepidera. Gernika osoa sutan ikusi nuen bertatik.

Cipriren txokora iritsi nintzen, baina ez zidaten pasatzen utzi.

Etxeko guztiak aurkitu nituen denbora batera, eta aita gure etxea nola zegoen ikustera joan zen. Guztia suntsituta zegoen.

Gernikatik alde egin genuen orduan, Bilbora eta ondoren Frantziara.

Gure herrira itzuli ginenean jakin nuen Cipri nire laguna bonbardaketan hil zela.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetze eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetze@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Zikinkeria artean, baina pozik

Aintzane Irizar
Antzuola

Abenduaren 5eko GOIENAn Josu Leturiaren gutuna irakurrita, eta hain kezkatuta ikusi dudanez, hitz batzuk idatzi nahi dizkiot. Dena dela, pixka bat mindu ere egin nauzu, Josu; izan ere, Antzuolan bizi naiz eta oso gustura nago "inposatu" zidatena egiten eta... nire buruari behin eta berriz galdetu diot: "Zikin bat ote naiz? Zerri bat?". Dena dela, ez dakit, ba, inposizioa den osoko bilkuran aurkako boto bakar bat ere jaso ez zuen erabaki bat abian jartzea. Estetikoki ere gustu txarrekoa izango naiz, beharbada (baliteke garbitasunak eta estetikak zerikusiren bat izatea, ezta?); egia da ez naizela ni inoiz estetikari aparteko garrantzia ematen dien horietakoa izan. Horrekin lotuta, baina, anekdota bat kontatuko dizut, Josu. Orain dela gutxi Hernanin izan ginen eta ez ginen gogoratu ere egin han ere "inposizioaren" pean bizi direnik. Ia egun osoa eman genuen Hernanin eta ez ginen ohartu ere egin, ez genituen zintzilikarioak ikusi, eta, are gehiago, abuztuko egun sargoritsu haietako bat zen eta usain txarrik ere ez genuen nabaritu (despistatu samarrak izango gara, agian, eta katarro pixka bat ere izango genuen, beharbada). Hori bai, Oñatira astebururo joaten naiz eta astero ikusten ditut edukiontzi eder, ponpoxo horiek, ze politik! Zela apaintzen duten herria! Usaina ere berezia dute eta garbitasunaren benetako irudia dira. A ze zortea oñatiarrek! Oraingoz... Matematiketan ere ez naiz inoiz oso iaioa izan (ikusten duzunez, ez naiz oso pertsona "jantzia"), baina diozun bezala, %40 aurka baldin badago, gainerako %60a beharbada alde dago, ezta? Edo, behintzat, ez dago aurka. Hori ere kontuan hartuko zenuten, ezta? Hori bai, sekulako ilusioa egin dit herri kontsulten alde horrenbeste jende dagoela ikusteak. Dena dela, lasai, Antzuolan ere jende asko zegoen oso urduri kontu honekin eta ez dut bizitzak jarri dion oztopo hori gainditu ez duen inor ezagutzen. Gainera, horrenbesteko zikinkeria artean bizi arren, ez da oraindik inor gaixotu; eta oso sistema garestia izan arren, ez dizkigute tasak igo (ez, behintzat, lehen ere urtero igotzen zigutena baino gehiago); eta estetikoki oso itsusia izan arren, itsusitasunak ere gure gizartean bere tokia izan behar duela ikasteko balio izan digu; eta jasanezina jasangarri bihurtzen ere ikasi dugu. Badakizu, bizitzako momentu zailnetan, asko ikasten baita.

Agur, Josu, ondo izan eta, bien bitartean, segi bosgarren edukiontzi ponpoxo hori

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENak eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

diseinatzen. Ideia bat! Kontsulta bat egin dezakezue herritarrek estetikoki ze diseinu nahiago duten jakiteko. Zorte on!

Etika demokratikoa

Joxe Migel Uribarren
(Aretxabaletako EAJ-PNV)
Aretxabaleta

Aretxabaletako Udala etika demokratiko gabeziaren beste adibide bat dugu. Bildu koalizioko zinegotzi batek (udal hauteskundeetan 13 zinegotzietatik 7 lortu zituen Bilduk) arrazoi pertsonalak bitarteko irailean dimititu ondoren, koalizioak ordezkoa "izendatu" du, Iñigo Louvelli Nieves. Hiru hilabete luze joan dira izendapena eman den arte. Gauzarik arraroena, ordea, koalizioaren udal hautagaitza-zerrenda (itxaropentsua suposatzen zena) osatzen zuten gainontzeko 7 hautagai eta bi ordezkoeetatik inork zinegotzi ohi horren tokia bete ez izana da. Hutsunea eman den taldearen eskariz, Iñigo Louvelli Nieves izan da izendatua (hori bai, beti gaitzetsi duten espainiar legedi horretan oinarrituta). Kasualitatea? Edo aretxabaletar herriari iruzurra? Arraroa den zerbait ari da gertatzen Aretxabaletan bederatzi hautagaik Udalean sartzeari uko egiteko (koalizioaren zerrenda Ezker Abertzale, Eusko Alkartasuna eta Alternatibako kide eta zaleek osatzen zuten). Deserosoak ote ziren hautagai hauetako batzuk Udal Gobernuarentzat? Koalizioko alderdi hegemonikoaren "gobernatzeko era berriarekin" ez ote zetozen bat? Edo soilik, bederatziaik "uko" eginarazi dituzte komisario politikoa kokatzeko? Agintzen dutenekin ados ez egonik mugitzen hasi eta "koalizioaren" argazkitik ateratzen –edo kentzen– hasi diren sintoma ote da? Bildu koalizioak 2011ko udal hauteskundeetara aurkeztutako zerrenda hustu izanagatik azalpenak merezi ditu Aretxabaletako herriak; aurreko zinegotziaren hutsunea betetzeko udalbatzar bat egitea ez da nahikoa; zinegotzi berri hau ez zen izan Bilduk aurkeztutako zerrendan bozkatua. Bere izena ez zen inongo zerrendatan ageri.

Jokamolde hau *etika demokratiko eza* gisa ezagutzen da. Zinegotzi berria izendatzeko formula martxoaren 10ko 1/2003 Lege Organikoan dago oinarrituta eta Espainiako Juan Carlos I.a Erregearen hitz hauekin berretsia: *"A todos los que vieron y entendieren / Sabed: Que las Cortes Generales han aprobado y Yo vengo a sancionar la siguiente Ley Orgánica. / Por tanto Iñigo Louvelli Nieves será nuevo edil del Ayto. de Aretxabaleta por decisión del Rey de España Yo / Juan Carlos I, quede escrito y archivado para la posteridad"*.

Aita Molinari

Itxaro Artola
Arrasate

Kaixo, Jon, aspaldiko. Duda egin dut berez arbuiatzen diren zure salaketei erantzun ala ez. Baina egin egingo dut, niri egotzi dizkidazunak bere lekuan jartzeko eta, bide batez, gauza pare bat argitu dezazula eskatzeko, zilegi bazait. Hasteko eta behin, nik ez dut Arrasateko txikiteoan entzundako ezer eraman zutabe horretara, amorruak itsutu gabe irakurtzen baduzu konturatuko zara. Ez da nire errua batzuei zakila zut jartzen bazaie korrika doan moja gazte baten abitua dantzan ikuste hutsarekin. Nik esandako gehiena Munillak eta moja komunitate horretako arduradunak tokiko hedabideei adierazitakoa da. Hitzez hitz hartua. Gauza bakarra jaso dut Internetetik: lekaime gai horien ordena beste baten egondako barne botere borroken ondorioz sortu dela. Eta kito. "Botere goseak mugitzen" dituela eta, zure ekarpen manipulatzailea da. Harritzekoa da, bestalde, nire kontra sugeak eta muskerrak jaurtitzen zutabe eta erdi bete duzun arren, datu bakar bat ere eman ez izana nik esandakoak ukatzeko. Beraz, hor doakizu lehenengo eskaera: kontatuko diguzu, txutxu-mutxutzat jotzen dituzunak argitze aldera, moja horiek "nor diren, nondik datozen, zer egiten duten"? Egingo bazenu nire hanka-sartzea onartu beharko nuke, akaso. Osterantzean, hiraz idatzitako gutun bat baino ez genuke izango. Niri leporatzen dizkidan hutsegite guzti-guztietan erortzen den sermoilari sutu baten usteak.

Hori da hori ereduarekin predikatzea. Badirudi zure ustez batzuk soilik zaretela nor –ni ez, noski– edozer eta edozein modutan esateko. Pulpituaren ajeak, seguru asko. Edozein kasutan, ziur nago Goienak ere eskainiko dizula tribunarik aurpegiratu dizkidazun gezurrak banan-banan argitzeko, eta nik bihotzez eta zintzoki eskertuko dizut. Izan ere, zuk iradokitzen duzunaren kontra, nire barruan ez dago, zorionez, gorroto zipitzik, ez zurekiko, ez ordezkatzen duzun elizarekiko, ez beste inorekiko. Izugarria da zein hedatua dagoen jendarte honetan herra eta desadostasuna nahasteko joera. Zoritxarrekoak horrela bizi direnak, sekula ez dute barne lasaitasunik izango. Amaitzeko, bigarren eskaera. Zure gutunak sortu didan zalantza bat argitzea nahiko nuke. Emakume horiek "beren buruak defendatu ezin dituzten neskak" direla diozunean, zer esan gura duzu, zehazki? Eskean ibiltzera behartuta egoteaz gainera, beren iritzia ematea galarazita dutela? Bistan da, Jon, oso bestelako moduak daudela munduan pertsonen ohorea, eskubideak, errespetua, sinesgarritasuna... zuk aipatutako kontzeptu horiek guztiak ulertzeko. Izan zoriontsu.

Iraultza? Ez faxista, ezta sozialista ere!

Eñaut Portuondo
Arrasate

Garai zail hauetan, batek baino gehiagok krisiaren erantzuna iraultzan dagoela pentsa dezake. Eta iraultza sozialista aldarrikatuko du, sakonean iraultza faxista izan arren; iraultza biek metodologian bat egiten dute: propaganda demagogikoa, inposaketa eta ezberdin pentsatzen duenaren jazarpenean oinarrituta. Baina euskal herritarrok badakigu historian zehar iraultzek gure herrira samina eta sufrimendua besterik ez dutela ekarri. Frantziako Iraultzak Lapurdiko Sara eta inguruko herrietan inposatutako deportazioen ondorioz gertatu ziren heriotzak gogoratzerek besterik ez dago. Edo Hitlerren iraultza nazional-sozialistak Gernikako bonbardaketarekin burutu zuen

sarraskia. Beraz, mondrautarrok badakigu iraultza ez dela bidea. Badakigu ez sozialismoa ezta faxismoa ere ez direla bidea. Badakigu bidea denon indarrak batuta proiektu komunitario progresista eta integratzaile bat aurrera eramatea dela. Baina bide hori sozialismoa aldarrikatzen duen pankarta handi bat jartzea baino malkartsuagoa da. Apalagoa. Grisagoa. Egunero egunero lan isil eta diziplinatua eskatzen duena. Zoritxarrez, gainera, txosna guneetan jarritako pankartetatik urruti.

Balkoiz balkoi, atez ate

Jon Altuna
(Hernanin bizi den bergararra)
Bergara

Harrituta geratuko da Olentzero Bergarako balkoiak ikusita. Ikusgarria da, benetan, Bergara Garbia plataformak abiatu duen kanpaina. Harrituta nago herrian hondakinak erraustearen alde zenbat lagun dagoen jabetuta. Baina balkoian zabor poltsak jarri dituzten herritarren artean ez dut uste inork etxe ondoan erraustegia nahi duenik. Erraustegiaren aurka erantzun sendoa izan da non jarriko zen esaten hasi zirenetik, Urnietan, Irunen eta Hondarribian, Lasarte-Orian edo Usurbilen. Herri honetan jarri zen duela ia lau urte zabor-hondakinak jasotzeko atez ateko bilketa sistema, erraustegiak alternatiba zuela frogatuz. Gero jarri da martxan Hernanin, Oiartzunen eta Antzuolan. Datorren urtean Bergaran eta Oñatin jarriko dela iragarri dute.

Hernanin ezagutu dut nik atez ateko sistema hau eta oso eraginkorra dela ikusi dut, Europa osora zabaltzeko modukoa. Ez dago herri hauetan lortu den birziklatze datuei begiratu beharrik, beira, plastikoa, papera eta organikoa aparte aterata, geratzen den zaborra huskeria dela segituan konturatzen da bat etxean bertan. Horrentzat ez dago hainbeste milioi eta milioi balio duen erraustegiaren beharrik.

Bosgarren edukiontzia jartzearen alde daudenentzat atez atekora ohitzea oso erraza izango dela uste dut; azken finean, biltzeko sistema da soilik aldatzen dena. Hondakinak behin etxean bereizita, jaisteko modua aldatzen da, dagokien edukiontzietara eraman beharrean, etxe atarira eraman dagokion egunean dagokiona. Hala ere, herritar zabar asko dago dena batera botatzen jarraitu nahi duena. Horiei erakutsi egin behar zaie, horien jarrera zuzendu beharra dago. Eta bosgarren edukiontziak jarri diren tokietan ez da nabarmen jaitsi edukiontzi berdeetan dena nahastuta jasotzen den zabor kopurua. Atez ate biltzen den tokietan

bai. Horixe da zikina eta garestia: zabor poltsan dena batera bota eta erraustea. Krisi garaian ehunka milioi euro erretzea eta airea zikintzea. Atez ateko bilketa hobetu daiteke, seguru, baina horretarako zabaldu eta ezagutu egin behar da, dituen gauza onak indartu eta eragozpenak zuzendu. Ezagutzeko, Hernanira etorri... edo Antzuolan bertan informa zaitezkete. Sistema ez da zikina, ezta konplikatua ere, herrian lanpostuak sortuko ditu... Nire ustez, sistema hain interesgarria izanik, harritu egin nau, ondo ezagutu aurretik, probatu gabe, atez ateko sistemaren aurka sinatu eta balkoian poltsa jarri duten herritarren kopuruak eta nokeatu horiek guztiak errausketaren alde egon daitezkeela pentsatzeak. Usteak sarri erdia ustela dauka, ez daukat zalantzarik, agian oker nabil, eta, seguru aski, hobe oker banabil. Zoritxarrez, hondakinak jasotzeko moduen eztabaida gaiztotu egin da, baina, zorionez, xextrak gure etxeetara ekarri du afera; beraz, herritarrek eta herritarren ordezkariek gai izan behar dugu modu eraginkor batean erantzun eta, ahal bada, erraustegia baino irtenbide askoz merkeago eta garbiagoa topatzeko. Nire iritziz, atez atekoa da bidea, baina beste batzuk egon daitezke. Gaur egun, arnasa eta aire garbia behar dugula uste dut, batez ere itoko gaituen krisitik ateratzeko.

Arrasateko EAJ–PNVko Uri Buru Batzarrari

Enrike Letona
(Arrasateko Ezker Abertzaleko kidea)
Arrasate

Kutxaren lehendakari eta kontseiluaren izendapenean trikimailuak erabili zirela salatu nuen 12/12/05eko gutunean eta esandakoari eutsi egiten diot. Zuen erantzun gutunean nik aipatutako trikimailuei buruz ez duzue ezer esaten. Bai, ordea, gezurrak zabaltzen ditudala. Ez dut inolako gezurrik esan eta zehatz-mehatz azaltzen saiatuko naiz. Nire gutunean bi trikimailu aipatu nituen. Lehen trikimailua: Euskararen Kontseiluko ordezko hautagaiak 70 urte zituelako hautagaitza osoa atzera bota zuten. Gero, DYAko hautagaitzak ez zuen ordezkorik eta hala eta guztiz ere onartu egin zuten. Zergatik bat bai eta bestea ez? Zergatik ez zen onartu kontseilukoa ordezkorik gabe? Bigarren trikimailua: 15 kideko administrazio-kontseilua hauek osatzen zuten: EH Bildu, 7; PNV, 3; PSOE 2; Pixkanaka, 1; CCOO, 1; DYA, 1. Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria izendatzeko bozketa egin zen, EH Bilduk 7 atera zituen eta

PNV-EAJk 7 ere bai, DYA abstenitu egin zen. PSOEko kide batek 69 urte zituen eta orduan erabaki zuten adin gehien zuen pertsonaren kalitatezko botoarekin hautsiko zela berdinketa (inongo arauditan ez du jartzen horrelakorik). Baldin badakizu zaharrena PSOEkoa dela eta zer bozkatu duen... hori ez al da trikimailu bat erabiltzea? Berdinketaren aurrean ez al da hori baino logikoagoa ordezkari gehien dituen hautagaitzak izendatzea lehendakaria? Erabaki dezatela herritarrek zein den logikoena eta zilegiena...

Erakunde sortzaileen ordezkari guztiekin gelditzeko arazo moralik ez dugula izan diozue. Donostiako udaletxean azken hauteskundeak arte PSOE egon da agintean eta Aldundian, berriz, PNV-EAJ. Zuek ez diguzue inolako oparirik egiten eta ordezkari guztiak guretzako izan badira, zuek aurreko legisladuretan ezarritako araudiarengatik izan da. Zuek ederki diozuen moduan, ez dugulako gehiengo osoa eta, beraz, ezin egin horrelako aldaketarik. Beraz, aldundiaren kasuan ez egotzi ezer EH Bilduri, zuek egin duzue araudi hori! Zuek edo nik? Nork egiten du hemen demagogia merkea?

Eta zuen gutunean kooperatibisten zergen kontua zertara dator? Ez du zerikusirik gaiarekin. Hori ez al da demagogia merkea egitea? Dena den, gai honi ere helduko diot, jakina. 1997an onartutako araudia da eta zuek, PNV-EAJk, egindakoa. EH Bilduk egin duena bakarra da hauteskundeak irabazi, Gipuzkoako Aldundian gobernatzen hasi eta bertako araudia aplikatu. Ni ere kooperatibista naiz eta harro nago. Baina kooperatibista izateak ez dit ematen inolako babes berezirik. Beste edozein langile edo enpresario bezala irabaziak ditut eta irabazi horiek deklaratu ondoren, dagokidana ordaindu behar dut eta kitto! Gustura jarraituko nuke, baina Goienak, normala den bezala, mugak jartzen dizkie gutunei. Gai honen inguruan ez dut gehiago idatziko. Dena dela, edozein modutan apaltasunez esaten dizuet hemen gaudela nahi duzuenerako.

Debagoiena garbiagoa

Jexus Urmeneta
Oñati

Zaborraren kudeaketan, atez ateko ekimenaren aldekoak eta aurkakoak daude, eta egunkarietan hainbat artikulu eta iritzi agertu dira gure bailaran zein Euskal Herri osoan. Debagoieneko herri batzuetan orain dabiltza ekimen talde horren aurkako kanpaina gogorra egiten, eta gai honetaz

denboraldi luzez ibili ondoren, herritarrei eskatzen digute orain balkoietan plastiko poltsak zintzilikatzea; asko dira hori egiten ari direnak, Gabon garai honetan ohikoak diren bestelako zintzilikarioekin nahasten dituzten bitartean. Neuk ez dut ezer ipini behar; ideia erakargarri hau oso bestelako eskakizun garrantzitsuentzat erabil dezakegu. Agian, horietako bat laster batean gerta daiteke, errauskailua gure eta norberaren herrian jartzea erabakitzen bada, herri bati edo besteari *potoloa* tokatuko zaigu-eta loteria honetan.

Debagoieneko hainbat herritako politikariek urte askotan gobernatu gaituzte eta haien aginduak derrigorrez onartuak izan ditugu; diktadorea hil zenetik hona ez dut inongo udaletan erreferendumik ikusi, nahiz eta maiz eskatu herri askotan eta modu herrikoian botazioak eginak izan diren, udal horiek emaitzak baliogabetu egin baitituzte eta kito! 30 urte pasa eta ezker abertzalea udaletara eta Diputaziora heldu den honetan, eta hainbat aldaketa egiten ari direnetan, batzuk lehen unetik zarataka ari dira, non eta kalean, orain arte usaindu ere egiten ez zuten lekuan. "Demokrazia" aldarrikatzen dute. Ondo iruditzen zait kaleratzeko pauso ausart hori ematea. Zorionak! Ondo pasa edaten eta jaten egun hauetan, ez zaitezte larritu zaborrengatik, momentuz.

Lemoiz zentralaren martxa gelditu eragin zenetik pasa dira urte batzuk, eta burura datorkit zenbat aldiz ibili ginen etxeko balkoietan lapikoak astinduz eta joaz; udaletatik ez ziguten kasu handirik egiten; zenbaiten ustez, gu ginen "Cro-Magnonak", kobazuloetan trogloditen antzera bizi nahi genuenok. Baina batzuek nahi dugun gauza bakarra da datozen belaunaldiei herriak gero eta garbiago uztea, eta hemen bereiztu behar dira zer den ekologia eta zer estetika, eta benetako garbitasunaren aldeko pertsona guztiek ez ginateke talde ezberdinetan aritu beharko, batean bakarrik eta guztiok batera lana eginez baizik. Egunerakotasunean ohiturak pittin bat aldatu behar izana bada ere ez du inporta, oraingoan erosoena baino hauxe baita Ama Lurrak gizarteari eskatzen diguna, eta horretarako izan behar dira gu guztion joera eta jarrera.

Jon Iturberi erantzuna

Aintzane Oiarbide
(Batzar Nagusietako EAJko batzarkidea)
Bergara

Bidegiren zorrari buruz eta EAJk urteetan egindako azpiegitura erraldoien politikaz aritu zinen joan den astean.

Esan behar dizut informazioa kontrastatzea komeni dela iritzi bat eman aurretik, eta nabaria da zuri hori falta zaizula.

Jakin beharko zenuke 900 milioi euroko zulorik ez duela Gipuzkoako Diputazioak errepideekin, ez duela ere zuk esaten duzun desfasea. Hasteko, Diputazioak ez du zor hori, Bidegik baizik. Bidegi sortu zen autopisten ordainarekin errepideetan inbertsioak egin eta mantenua ordaintzeko, Diputazioaren aurrekontutik kanpo. Hau da, autopista erabiltzaileek ordaintzen dituzte inbertsioak, ez gipuzkoar guztiek. Gainera, aurreko legealditik, gipuzkoar erabiltzaileontzat deskontu edo hobari desberdinak izan ditugu eta gaur egun, 25 euro inguru ordaintzen ditugu gehienez AP-8a eta AP-1a. Egin diren azpiegitura garrantzitsuak generazio askotarako egin dira, ez hamarkada baterako. Azken urteetan egin den Gipuzkoako biribilgunea, AP-1, Donostiako 2. Ingurabidea, Beasain-Bergara (Deskargako tunela barne), guztiak dira Gipuzkoa eta Euskal Herria bertebratzeko beharrezko azpiegiturak. Batez ere, gure bailararentzat beharrezkoak. Gipuzkoarron bizitza kalitatea eta segurtasuna bermatzeko aurrerapauso handia eta esfortzu handia egin da. Hau guztia ez da zuloa, inbertsioa baizik. Hori guztia poliki ordaintzen ari da Bidegi, eta ez du izango inolako zailtasunik gaurko kudeatzaileek ondo kudeatzen badute. Hartu diren erabaki guztiak txosten juridiko eta teknikoetan oinarrituta daude. Bestalde, Batzar Nagusietako alderdi guztien oniritziz onartutako proiektuak izan dira, gehienak aho batez, eta bertan zeuden gaur egun EH Bildun dauden Aralar eta EA ere. Guztiak zeuden Bidegiren administrazio kontseiluan eta informazio guztia jaso dute denek. Gestio txarra eta delituak ere aipatzen dituzu. Honen aurrean esango dizut Euskal Kontu Epaitegiak ez duela gestio txarrik aipatu ere egiten, Batzar nagusietan izandako aurreko agintarien agerraldietan alderdi guztiek babestu dituztela emandako azalpenak eta Bildu bakar-bakarrik geratu dela. Delituei dagokienez, datuak baldin badituzu, aurrera, jo ezazu epaitegietara. Salaketa larriak dira edozein modutan botatzeko.

Olentzero dator atez ate

Andoni Agirre eta Ane Egino
(Debagoiena Zero Zabor)
Debagoiena

Heldu dira berriz Gabonak. Heldutasunean beste modu batera bizi baditugu ere, gehienok gogoratzen dugu txikitan Gabonek zuten magia.

Olentzerok ala Errege Magoek ekartzen zizkiguten oparien magiak lilura batean edukitzen gintuen egun hauetan. Baina denborak erakutsi zigun magiarik ez zela. Errealitatea nekez izaten da ametsak bezain ederra, baina errealitatea onartzea beste erremediorik ez dago.

Hondakinekin ere, Olentzerorekin bezala gertatu zaigu askori. Edukiontzian bota eta... "magia", desagertu egiten ziren. Akabo arazoa! Eta gu geurera. Baina gauzak horrela ez direla ohartu gara, gustuko ez izan arren, ez dagoela magiarik. Gure hondakinak, zabor bihurtuta, beste herri batzuetara doaz, beste herritar batzuen etxe ondoan usteltzen dira, beste familia batzuek pairatzen dute gure "inozentzia". Guk ez dugu gure erosotasunak beste familia batzuk kaltetu ditzan nahi. Errealitateaz jabetu behar dugu, gustuko izan edo ez. Zaborra gutxitze aldera, irtenbide magikoak albora utzi eta emaitza onak emateko gai direla frogatu duten sistemak abian jarri behar ditugu geurean. Geure zaborra auzoan hartzen duten familia horien elkartasunak ahalik eta zabor gutxien eta ahalik eta garbiena bidaltzea adina merezi du, ezta?

Atez atekoak erakutsi du hondakinak gaika biltzeko sistema onena dela. Onena bakarrik ez, parerik gabea ere bada. Atez ate %80tik gora bildu daiteke gaika. Edukiontziekin %35 gainditzerik ez da inon lortzen organikoarena gehituta ere. Ez dezagun datu hori bazterrean utzi.

Guztiok diogu ahalik eta hondakin gutxien sortu eta ahalik eta gehien birziklatu behar dela. Ez da elkarlanerako abiapuntu txarra. Guztiok eragiten dugu arazoa eta guztiok eman behar diogu konponbidea. Utz ditzagun alde batera liskarrak, irainak eta boikotak, eta jar gaitezen elkarrekin lanean. Azter dezagun zerk egiten duen atez atekoa hain eraginkor, berma dezagun hori, eta jar ditzagun mahai gainean kezkatzen gaituzten ezaugarriak eta hobetu daitezkeenak. Guztion ekarpenak dira garrantzitsuak, guztiok gara garrantzitsuak. Herritarrok horretarako aukera eta gunea edukiko dugu. Parte hartze prozesua. Jarrera eraikitzailea nagusitu eta arduraz jokatzu gero, bilketa sistema eraginkor, eroso eta garbia adostu dezakegu geure herrirako. Ez dezagun aukera gal. Erakutsi dezagun gauzak elkarrekin egiteko gai garela. Erakus dezagun gauzak elkarrekin eginda gauza onak egiteko gai garela. Gure eskua luzatuta dago. Izan gaitzeen arduratsuak, joka dezagun errespetuz eta zintzo, ea Olentzerok opari onak ekartzen dizkigun. Hori bai, aurtengoan, Olentzerori ahalik eta enbalaje eta bilgarri gutxien jar ditzala eskatuko diogu, hondakinik onena sortzen ez dena delako.

Maidier Sierra | Minbiziaren Kontrako Gipuzkoako Elkarteko (AECC) psikologoa

"Osasuntsu bizi eta ondo elikatuta, gaixotasun asko saihestu daitezke"

- Minbiziaren Kontrako Gipuzkoako Elkarteak 25 urte beteko ditu datorren urtean
- Hainbat ekimen antolatuko dituzte, eta, hasteko, errezeten liburu bat argitaratu dute

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Minbiziaren Kontrako Gipuzkoako Elkarteak (AECC) 25 urte beteko ditu datorren urtean. Hori dela eta, hainbat ekimen antolatu dituzte urte osorako. Hasteko eta behin, liburu bat aurkeztu dute, *A tu salud* izeneko; bertan, Gipuzkoako hainbat sukaldari eta gozogileren errezeta osasuntsuak jaso dituzte. Elkarte horretako psikologo Mirian Sierrak eman dizkigu zehaztasunak.

Berezia izango da zuendako 2013a.

Bai, hala da. Oso berezia da datorren urtea, 25 urte betetzen ditugulako. Luzaroan gabiltza urte berezi horretako ekitaldiak antolatzen.

Dagoeneko ospatzen hasi zarete, liburu aurkeztu berri duzue-eta, ezta?

Bai. Minbizia gutxitzea da gure elkartearen egiteko nagusia. Gure indar guztiak bideratzen ditugu hori lortzera. Hori horrela, jakin badakigu elikadurak osasunarekin zerikusi zuzena daukala. Eta aurtengo egiteko garrantzitsua izan da liburu hau, *A tu salud* izeneko, argitaratzea. Gipuzkoan sukaldari handiak ditugu; horietako 50 sukaldarirengana jo dugu, eta euren errezetak utzi dizkigute. Osasunari begirakoak dira. Jendarteari esan nahi diogu osasuntsu bizi izatea, ondo elikatzea, gure esku dagoela-eta, hala eginez gero, gaixotasun asko saihestu daitezkeela.

50 sukaldari baino gehiagoren errezetak dira. Zeintzuenak?

Arzak, Arbelaitz, Xarma, Gaztelubide, Etxeberri... 50 jatetxetako sukaldariek eginak. Horretaz gain, baina, gozogileak edo gozotegiak ere batu ditugu. Donostiako xaxuak zela egin, esaterako, jasotzen dugu. Norbaitek esango digu halako gozoak jatea osasuntsua ote den. Eta egia da egunero jateko ez direla, baina ona da halakoak, neurrian, noizean behin jatea.

Zeinendako da liburu?

Pertsona guztientzat. Osasuna egunero zaindu beharrekoa da, eta egia da liburu gustura hartuko duela bereziki sukaldaritzaren edo elikadura interesatzen zaionak, baina edozeinendako da interesekoa. Olentzero datorrela-eta opari polita izan daiteke. 10 eurotan eskura daiteke, Elkarren.



Maidier Sierra, Minbiziaren Kontrako Gipuzkoako Elkarteak argitaratu duen liburuarekin. | ENEKO AZKARATE

Liburuaz gain, beka batzuk ere aurkeztu dituzue...

Bai. Gure elkarteko bazkideen ekarpenari esker, hiru beka plazaratu ditugu ikerketa lanetarako. Gibeledako minbizia ikertzeko, eta abar.

Datorren urteari begira, zer?

Gure aurreikuspena da hilero, gutxienez, ekimen bat antolatzea. Esaterako, urtarrilean beste egoitza bat irekiko du elkarteak; izan ere, helburua da gipuzkoar guztiengana heltzea. Donostian, Irunen, Zarautzen eta Tolosan

"2013an gurekin izango dira Eduardo Puntset eta Mariano Balbacid"

"Koloneko minbizian, erabakigarria da elikadura"

baditugu egoitzak; aurrerantzean, Zumarragan ere bai, han irekiko dugu-eta egoitza berria. Minbizia duten gure elkarteko kideengana hurbildu nahi dugu, ahalik eta zerbitzu onena emateko.

Berbaldiak-eta ere bai, ezta?

Bai, eta pertsona ospetsuak etorriko zaizkigu, gainera. Esate baterako, maiatzean, Donostian izango ditugu Eduardo Puntset eta Mariano Balbacid. Ikerkuntzan, osasun arloan, minbiziaren... egindako lanagatik nabarmendu da Balbacid, eta

Puntsetek minbiziari aurre egin dio, eta gaixotasuna gainditu. Gustu handiz hartu dute gure gonbita, eta guretako ohore handia da.

Gure eskualdera ere hurbilduko zarete...

Bai, hala da. Azaleko minbiziaren gainean jardun izan dugu aurretik, eta, oraingoan, furgoneta bat hartu eta Gipuzkoan barrena murgilduko gara, eskualdez eskualde; Arrastera ere helduko gara. Udari begira kanpaina indartsua egingo dugu, gure helburua baita lurralde osora, herritar ororengana, heltzea. Bestalde, martxoan, koloneko minbiziaren gaineko kanpaina bat egingo dugu.

Elikadurarekin lotuta hori ere?

Bai. Basque Culinary Centerrekin hitzarmena sinatu dugu, ze, koloneko minbizian, garrantzi handia baitauka elikadurak. Elkargune gastronomikoak egingo ditugu Gipuzkoako 12 bat herritan. Medikuek, elikagaien adituek, sukaldariek... hainbat aholku emango digute, koloneko minbizia saihesten laguntzeko modukoak. Horretaz gain, sukaldari batek, etxean, erraz eta merke egiteko moduko errezetak erakutsiko dizkigu.

25 urte ez dira alferrik pasa; asko dira bultzatu dituzuen ekimenak?

Ez. Hastapenetan, esaterako, gaur egun onkologikoa den horretarako lehen makina erosteko diru bilketa egin genuen. Hura izan zen elkartearen lehenengo ekimena.

Gaur egun zenbat bazkidek osatzen duzue elkarte?

5.500 bazkide inguruk eta beste 1.100 boluntariok.

Azken urteotan hazi da, bereziki, bazkide kopurua?

Bai. Azkeneko bost urteotan, bereziki, ze duela bost urte 800 bazkide baikenituen. Eskerrak eman beharrean nago, bazkide horien ekarpena dela-eta egiten ditugu-eta ekimen hauek guztiak edo ematen dugu zerbitzua.

Zergatik halako hazkundea azkeneko urteotan?

Arrazoi askorengatik: alde batetik, prebentzioan eta ikerketan indar handia egiten gabiltza, hor dagoelako etorkizuna. Horrek asko mugiarazi gaitu eta jendea asko sentsibilizatu da.



IRABAZLEAK

ZORIONAK,
GUZTIOI!

FIDELTASUN SARIAK AISIA DEBA HOTELEKO BONOAK

A saria



Iñaki Larrañaga Alberdi
(Bergara)

B saria



Jesus Mari Garitano Sanchez
(Bergara)

Emazteak jaso zuen
saria bere ordezk

C saria



Jose Antonio Jauregi Intxauspe
(Aretxabaleta)

Mari Nati Olabek
jaso zuen saria bere ordezk.

C saria



Iñaki Azaguirre Urizar
(Bergara)

A saria: Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuararekin + spa zirkuitua)
B saria: Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gosaria eta spa zirkuitua
C saria: Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.

A saria

**Amaia
Altuna
Sagasta**
(Arrasate)

B saria

**Arantzazu
Barrutia
Mitxelena**
(Bergara)

SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA



**Mikel
Lasa
Erle**
(Arrasate)



**XBOX 360 + HALO
REACH JOKOA**



Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!





Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAETARAKO SAIA



GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE
ERAKUNTZA

HOBETUZ
 Formação Avançada e In-Formação Profissional Continuada
 Formação Transdisciplinar e Interdisciplinar



Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara.
Tel: 943 76 70 49
ikastaroak@imaltuna.com
www.imaltuna.com



HERRIAK

ARETXABALETA

Etxegabetzeen kontrako protokolo aitzindaria

- Aretxabaletako Udalak abiarazi du, eta Debagoieneko lehena da
- Errealitatearen ondorioen "beharrak bultzatuta" landu dute

UBANE MADERA | ARETXABALETA

"Etxegabetzeak gauzatzen dituzten eta egiten ez dituzten entitate finantzarioen arteko sailkapena egingo du Udalak. Etxegabetzeak egiten ez dituztenekin orain arte bezala, bere horretan utziko ditu harremanak Udalak. Eta etxegabetzeak egiten duten entitate finantzarioekin Udalak harremanak berrikusi egingo ditu".

Horixe da etxegabetzeen aurrean Aretxabaletako Udalak onartu eta abiarazi duen jarduteko protokoloaren nondik nora koetako bat.

Ildo beretik, protokoloak zehaztu du "Udalak herritarren jakinaren gainean" utziko duela etxegabetzeen aurrean "entitate finantzario bakoitzak duen jarra". Eta hori egingo du Aretxabaletako Udalaren webgunearen, prentsaren bitartez, eta etxegabetuen eskura utziko duten orri baten bitartez, haiek "nahi dutena adierazteko".

"Egoerak behartuta"

Mota horretako protokolo bat abiarazten gure ibarreko lehenengo udalerrria da Aretxabaleta, eta Euskadin ere lehenengoa ez bada, lehenengoetakoa izango da.

"Beharrak bultzatuta" iritsi dira puntu horretara: "Aretxabaletak bazituen protokoloan dauden ekimen gehienak martxan jarrita. Orain dela urtebete, oraindik Kutxa zenean, eduki genuen etxegabetzeraino iritsi ahal zen egoera oso kritikoa bat, eta jarri

ginen Kutxarekin harremanetan. Nahiz eta oraindik protokoloa martxan jarri barik eta puntuak zehaztu barik izan, beharrak bultzatuta martxan jarri genituen geneuzkan baliabideak. Orain egin duguna da protokoloaren bidez horri guztiari forma eman; baina esandako moduan, lehenagotik ere egoerak behartuta bagenituen zenbait gauza lotuta",

esplikatu du Ana Bolinaga Aretxabaletako alkatea.

Etxebizitza duina: eskubidea

"Gobernuan sartu ginenerako kezkatuta geunden etxebizitzaren inguruan. Nik etxebizitza duin bat izatea eskubidea dela esango nuke, eta hortxe dagoela gakoa. Eskubide hori sustatu eta bermatu egin behar dugu, eta horre-

tarako ausardiaz legea aldatu eta erabaki politikoak hartu behar dira. Eta noski etxebizitza duin batean bizitzea eskubidea bada, lanpostu duina izatea beste eskubide bat da. Eta esandakoa ez bada bermatzen, gainontzeko erabakiak partxeak besterik ez da. Itota bizi da jendea, etxegabetzeak egon edo ez egon; eta ez nabil azpimarratzen jabetza pri-

batuaren beharra; etxebizitza duin baten aldeko politika egin daiteke alokairu soziala bultzatuz eta abar", gaineratu du tinko alkateak.

Dena den, Bolinagak jakinarazi du ez dutela etxegabetze egoeran dauden aretxabaletarren berri, "baina jakin badakigu Udalako Zerbitzu Sozialak hurbiltzen den herritar kopurua gero eta handiagoa delako, jendea dabilela benetan larri".

Herritarrei babesa

Horregatik guztiagatik, Aretxabaletako Udalak, orokorrean, "etxegabetze denak, denbora mugagabean bertan behera utzeko exijitzen du" (hori adierazten duen mozioa onartu zuen azaroan); eta hori guztia oinarri hartuta landu du etxegabetzeen kontrako protokoloa.

Era berean, etxe-hustea salatzeko batera, egoera hori bizi izan duten edo bizitzeko arriskuan dauden herritarrei babesa eta laguntza eskaini gura die. Ana Bolinaga alkatea bera eta Maider Aizkorbe ongizateko zinegotzia jarri dira, hain justu, herritarren eskura. Telefono zenbaki eta helbide elektronikoa bana ere horretarako bideratu dituzte: 943 711862 eta alkatetza@aretxabaleta.net.

Eta "ohiko etxebizitzarik gabe geratu diren herritarrei premiazko irtenbidea emate aldera eta alokairu soziala erreferentzia nagusitzat harturik, Aretxabaletako Udalak etxebizitzaren eskumena duten erkidego eta foru entitate publikoekin (Etxebide eta Vinsa) elkarlana bultzatuko du; eta hainbat etxebizitza hutsik dituzten banku eta higiezin enpresei ardura exijituko die".



Kaleratzeak-Stop taldea Aretxabaletan sinadurak batzen, eguaztenean. | JAGOBA DOMINGO

Mozioak eta sinadura bilketak

Aretxabaletako Udalak izan da etxegabetzeen aurrean jarduteko protokoloa aktibatu duen Debagoieneko lehen udalerrria. Etxegabetzeen egoera salatzeko mozioa onartu duen lehena ere (azaroa) hura izan da. Hala ere, oraingo astean, Kaleratzeak-Stop plataformak bideratuta, etxe-husteen kontrako mozioak aurkeztu dituzte Bergaran, Eskoriatzan eta Elgetan. Eta asmoa da gainontzeko herrietan ere gauza bera egitea. Bestalde, talde berak deituta, azken hiru egunotan etxe-husteen kontrako sinadurak batzen jardun dute Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Bergaran; eta gaur, egubakoitza (18:00etatik 20:00etara), eta bihar (11:30ean, Biteri plazan), Arrasaten dute horretarako hitzordua.

ESANAK

"Itota bizi da jendea, etxegabetzeak egon edo ez"

ANA BOLINAGA | ALKATEA



Kontzeziño kalea 6 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 25 98
www.arrasateoptika.com
arrasateoptika@euskalnet.net



Optometria konportamentala

• Ukipen lente bereziak

• Ikusmen terapia

• Pertzepzio zailtasunak

• Jatorrizko erreflexuak

Udal aurrekontuak, oposizioak ikusita

Hilaren 26an osoko bilkuran bozkatuko dituzte 2013ko aurrekontuak, eta oposizioa lantzen ari da

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Abenduaren 13an prentsaurrekoa egin zuten Inazio Azkarragaurrezar alkateak eta Iratxe Zeziaga Ogasun zinegotziak udal aurrekontuen harira.

Zenbait gairen artean, egoera zaila izanik ere, orain arteko lehen-tasunei eusteko asmoa agertu zuten alkateak eta zinegotziak. Diruari dagokionez, iazko antzeko kopurua bideratuko da Arrasate kudeatzeko; hau da, 30 milioi euro inguru. Udal aurrekontua batzorde bakoitzetik pasa da berezitura, eta horiek lantzen dihardute taldeek. Haiek eginiko proposamenak hilaren 26n bozkatuko dira osoko bilkuran.

PSE-EE, gaia lantzen

Goienan gainerako taldeen iritzia jakin gura izan dugu eta oposizio alderdiekin ipini gara harremanetan.

PSE-EE taldeko Paco Gartzia zinegotziak adierazi digunez, proposamena bere osotasunean ari dira lantzen. "Oraindik ez dugu baloraziorik egin nahi, goiz dela uste dugu, eta osotasunean ari gara aztertzen beraien proposamena. Dena den, inizatibak eramango ditugu hilaren 26ko osoko bilkurara, eta ikusiko dugu

ESANAK

"Aurrekontuen harira inizatibak aurkeztuko ditugu"

PACO GARTZIA | PSE-EE TALDEA

"Ez dugu proposamenik egingo, ez gaude ados-eta planteamenduaz"

J.K. GARITANO | EAJ-PNV TALDEA

zer gertatzen den horiekin." Horren ostean balorazioa egingo dutela esan digu Gartzia.

EAJ, kritiko zenbait arloekin

EAJ taldeak bere iritzia eman du asteon aditzera, eta aurrekontuen proposamenaren harira prentsa oharra bidali.

"Aurten, EAJ taldeak hala eskatuta, batzorde bakoitzetik pasa da 2013ko aurrekontua, berezitura". Hilaren 26ko osoko bilkurara proposamenak eraman ditzakete alderdiek. "Gure taldeak aurrekontuen gainean ez du proposamen zehatzik egingo, izan ere, zentzugabekeria ikusten dugu emendakinak proposatzea han eta hemen, osotasunean egin den planteamenduarekin ados ez bagaude".

Udal Gobernuak, besteak beste, enplegua lehen-tasunen artean dituela adierazi zuen. EAJk prentsa oharrean horrela jaso du: "Enplegua? Enplegu sustapena %85 murrizten du eta enpleguari lotutako pertsonalaren kostua %43. Gobernu organoen kostua, aldiz, legealdi honetan, 132.284 euro (+%55) igo da -liberatu gehiago daudelako- eta Alkatezaren marketinerako konfiantzazko pertsonaren kontratazioak eraginda. Agian Gobernu Taldearen marketina enpleguaren sustapena baino garrantzitsuagoa izango da?".

Inbertsioei dagokienez, EAJk honakoa gaineratu du hedabideei bidalitako oharrean: "Baina herrian inbertsioak egiteko ez dagoela dirurik dio Gobernuak; ez Zerrajerako Erlojuaren Eraikuntzan Arrasateko kultur taldeentzat lokal duin eta seguruak atontzeko, ez proiektu estrategikoak aurrera eramateko..."

Bi eskaera egin diote Udal Gobernuari: "Fundamentuzko Plan Estrategiko bat burutzea, nora goazen jakin dezagun. Bestetik, ganorazko analisia, ondo definitutako urteroko gestio plana eta ondo ezarritako epeekin".

Hilaren 26an osoko bilkuran jarraituko du 2013ko udal aurrekontuen gaiak.



Kike Amonarriz: "Euskara eta biziraupena eskutik joan dira beti"

Amonarrizek 'Lau begiratu euskararen norabideari' hitzaldi zikloaren azken saioa eskaini zuen

Z.V.D.M. | ARRASATE

Gogoeta serioa egin zuen -umorea baliatuz- Kike Amonarrizek eguaztenean Kulturaren eskalnitako berbaldian. AEDk antolatutako *Lau begiratu euskararen norabideari* zikloaren barruko azkena izan zen, eta jendeak gustura entzun zituen hark esandakoak.

Lehenengo eta oraingo arazoak

XIX. mendetik gaur egunerako istorioak kontatu zituen Amonarrizek eta erreparatu egin zituen euskarak bizi izan dituen eta bizi dituen egoerak: "Hizkuntzak ulertzeko moduak aldatu dira. Mundua bera eta gure ingurua ere aldatu da". Bestalde, normalizazio prozesuak aurrera egin ezean, "gurea dekorazio hizkuntza" bilaka daitekeela gaineratu zuen.

Euskara eta biziraupena eskutik doazela gogorarazi zuen berbaldian, eta euskarak bizi duen arazoa beti egon dela era-

kutsi zuen, XIX. mende hasierako testu bat irakurrita. "Orduan ere kexatzen ziren euskara zabarra baliatzen zutela batzuek".

Gazte hizkerak

"Gazte gehienek badakite euskaraz. Baina hizkuntza maila sarritan ez da nahikoa eta hitz-tun onek ere ez dakite ongi egiten". Gainera, gazte hizkera bakarra barik ugari daudela gaineratu zuen, eta horien ezaggarriak azaldu zituen: "Nahasten diren hizkerak dira, anitzak, hausleak, adierazkorrak, talde nortasunaren parte. Eta horrek jarrera kontrajarriak eragiten ditu".

Erabileraren garrantzia azpimarratu zuen Amonarrizek: "Guk ez baldin badugu egiten, inork ez du gure partez hitz egingo euskaraz".

Txalo zaparradarekin eman zitzaion amaiera ia bi orduko saioari.



Kike Amonarrizen berbaldia. | AITOR KAPEROTXIPI

AS Reformak
• ERREFORMAK OROKORREAN
• BIOERAIKUNTZA

Zarugalde kalea 6, 3 • ARRASATE
Tel.: 943 08 27 39 • 607 95 79 11
www.asreformak.net

Adara
ILE-APAINDEGIA

Tel.: 943 08 10 68
Biteri etorbidea 15 behea
adaraileapaindegia@gmail.com
Arrasate

Gabon zoriontsuak!

SARRAILAGINTZA-LANAK,
24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.
Oinetako konponketak - Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak

RAOS

Bañez doktorea 6, behea
Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57



Txikilandiako aurreko edizioa. | GOIENA

Jolas egiteko eta amets egiteko egunak iritsi dira

Izartsua taldeak 'Belena bizi izaten' erakusketa irekiko du bihar, eta astelehenean iritsiko da Olentzero

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Egun bereziak izaten dira, askorentzako, aurretik ditugun hauek. Jaiegunak direla-eta, aisialdirako tarte luzeagoa dugu. Olentzero ate joka dabil, eta asko hasiak dira eskutitza idazten...

Jaiotza, diorametan

Gabonetako apaingarrien artean, jaiotza gustuko izaten dute askok. Izartsuak, Arrasateko Belenzaleen Elkarteak, erakusketa irekiko du Santamas egunez San Frantzisko elizan, eta urtarrilaren 6ra arte egongo da ikusgai. Jaiotza hebrearra da, eta hamaika dioramaz osatuta dago: Deikundea, Ikustaldia, Jaiotza eta beste zortzi eszena jasotzen dira.

Duela 14 urte hasi ziren jaiotza ipintzen, Arantza Alonso elkarteko lehendakariak esan digunez: "Kalean ipintzen genuen hasieran, baina duela bi urte elizara ekarri genuen, apurtu-eta egiten zutelako". Gaur egun formatu txikiko jaiotzak egiten dituzte, kutxatan, agerraldika sartuta: "Lan handia eskatzen du, eta urtez urte eszenak gehitzen goaz".

Ikazkinaren bisita

Olentzeroren bisita jasotzeko ere gutxiago geratzen da. Urte osoan txintxo portatu diren neska-mutilak sarituko ditu ikazkinak, eta gainerakoei, ikatz poltsa ekarriko die. Abenduaren 24an, goizean, eskutitzak batuko dituzte Txorronpiok eta Txorronpiak, eta, Seber Altubera iristean, 13:00etan, musikariz lagunduta kantuan arituko dira; herritarrak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Bi mezulariak Martin Abadek lagunduta joango dira oraingo honetan, eta, hura nor den ezagutzeko, ipuin kontaketa egingo dute Kulturaten bezperan, 18:00etan. "Haurrentzat pentsatua badago ere, helduak ere ongietorriak dira". Hala esan digu Jokin Zubiriak, Santamas Komisiñoko kideak.

Olentzero egunerako eskaera berezia egin die herritarrei Zubiriak; hain zuzen, karroza inguruan doazen dantzari, musikari eta haurrei: "Baserritar jantzita joan daitezela. Beraz, Santamasetako arropak hurrengo urterako gorde beharrean, erabili egun horretan ere!".

Urtea jolasean hasi

Behin urte zaharra agurtuta, haur eta gazteek 2013ari jolasean egingo diote ongietorria. 22 urte dira Txatxilipurdik Txikilandia antolatzen duena, eta, urtero, 1.500 pertsonak gozatzen dute jolas parkeaz. Antolaketa lanak irailean hasi, eta urtarrilaren 3tik 5era izango da hitzordua.

Urte askoan kiroldegian elkartu ostean, iaztik Uarkapen antolatzen dute Txikilandia. Iazko prezio bera mantenduko dute, gainera: 10 euro, 0-3 urte arteko haurren bonua; 14 euro, 4-12 urte artekoena. Txatxilipurdiren egotzan eros daitezke aurrez.

Berritasunez josita dator hitzordua: puzgarri gehiago egongo dira eta gazteek ekintza propioak izango dituzte. "Balantze bike handietan eta rokodromoan aritzeko aukera izango dute eta serigrafia tailerra gaztetxeko kideekin". Bi gune berri ere egokituko dituzte: sorkuntza txokoa batetik eta familia eta ipuin txokoa bestetik.

Euskaraz jolas egiteko eta hezteko hitzordu arrakastatsuen beste edizio bat, esku-eskura.

Bertako baserritarren produktuak erostera animatzeko iragarkia aurkeztu du Udalak

Z.V.D.M. | ARRASATE

Herriko baserritarren produktuak erostera animatzeko asmoz aurkeztu zuen astelehenean Udalak Arteman bidez egin duen iragarkia. Lehen sektoreari bultzada emateko asmoz egin da eta baserriaren eta gure bizimoduaren garrantzia azpimarratzen dira, bai eta produktuen ezaugarriak ere: sasoikoak, kalitatezkoak, freskoak eta bertakoak direla, esaterako. Amaia zinema emanaldietan eta tokiko hedabideetan emango dituzte, esate baterako.

Urteko balorazioa

Marga Garmendiak, Enplegu eta Garapen Ekonomiko Zerbitzutako teknikariak, Arrasate Irratiari adierazi dionez, hileko hirugarren zapatuan Seber Altuben egiten den baserritarren azokaren balorazioa egin dute. "2012ko azoken balorazioa baikorra da, oso ondo joan dira orokorrean. Saiakera berezia egin dugu beste ekitaldi batzuekin bat egiteko, eta asko laguntzen du, zalanza barik". Urtarrilean formatu bertsuarekin hasiko dira, 2013ko edizioarekin.



UBANE MADERA

Esperanza Ama Birjinari gorazarre

Arrasateko Esperanza, Espe eta Espetxu izeneko 15 emakumek bazkaria egin zuten Batzokian martitzenean. Santoral katolikoaren arabera, abenduaren 18an Esperanza Ama Birjinaren eguna izaten da, umea izateko itxaroten ari zen birjinaren omenez. Arrasaten bosgarren urtez elkartu ziren mahaiairen bueltan, umore ederrean, atzoko eta gaurko kontuak gogora ekarrita.

Jose Antonio ile-apaindegia

GABON
ZORIONTSUAK!



Otalora 22 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

erreka

t a b e r n a - j a t e t x e a

Ondo ibili Santamasetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

LANDALUZE
HARATEGIA -TXERRIKITEGIA

BEREZITASUNAK
TRIPAKIAK
URDIAZPIKOAK
ODOLOSTEAK

Zorionak eta
Urte berri on!!!

Iturriotz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86




ARPE

Ile apaindegiko artikuluak

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09



Iazko txapelketa Donostiako Easo taldeak irabazi zuen; argazkian, Jon Basurko garaikurra ematen. | GOIENA

Santamasetako jaialdiak munduko txapeldunak batuko ditu Uarkapen

Frantzian lehian ibili diren Ibai Bolinaga arrasatearrak eta Beñat Rezusta bergararrak jokatu dute

X.U. | ARRASATE

Biharko, zapatua, Uarkapen antolatu duten Santamasetako pilota jaialdian ez dira pilotari profesionalak egongo. Trukean, baina, duela pare bat hilabete Frantzian Munduko Txapelketa irabazi zuten Ibai Bolinaga eta Beñat Rezusta debagoien-darrak izango dira zein baino zein gehiago. Hala, Bolinagak denbora tarte laburrean bigarrenengoz jokatu du etxeko zaleen aurrean, joan den zapatuan Santamasetako txapelketako finala irabazi zuen-eta Zuazuaren kontra (18-11).

Partidu hori ez dute buruz burukoan elkarren kontra jokatu, eta bai bikoteka. Hala, afizionatu mailako partiduan Arrasatekoak Jakarekin osatu du bikotea, eta Bergarakoak Arrieta izango du ondoan. Norgehiagoka horrekin batera eskuz binakako beste lehia bat izango da, hain zuzen, Gipuzkoako


Ohorezko Mailako txapelketan finalean izan ziren bi klubetako ordezkariak izango dira, oster, aurrez aurre. Amezketako Zazpi Iturriko eta Tolosako Aurrera Saiatz klubeko pilotariak, alegia. Partidu horretan Urbietak eta Telletxeak Olaitxearen eta Rezustaren kontra jokatu dute.

Herri kirolak, Zaldibarren

Goizean, Santamasetako jai egitarauaren barruan Herri Kirolak izango dira Zaldibarren. 12:00etan hasita Iñaki Perurena harri-jasotzaileak erakustaldia egingo du. Aizkoran Nafarroako eta Gipuzkoako aizkolariak aurrez aurre izango dira: kolpeka, abiadura proban, bertikalean oinbikoa eta lan luzeko probak izango dituzte. Trontzan, berriz, emakumezkoak eta gizonetzkoak izango dira aurrez aurre, eta motozerrakin erakustaldia ere egingo dute.



Ibai Bolinaga arrasatearra. | X.U.



Beñat Rezusta bergararra. | X.U.

Gazte mailako saskibaloionena Iturripen batuko da

Cornella, Getafe, Donostia, Logroño eta Burlatako taldeak lehiatuko dira abenduaren 26tik 28ra

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Datorren astean egingo dute Iturripen Gabonetako V. saskibaloia Caja Laboral Ipar Kutxa txapelketa, eta Ointxe!-ko arduradunek jakitera eman dute aurrean zein talde izango diren Arrasaten. Opari galanta MUko gazte mailako jokariendako, aurtengo edizioan Cornella, Getafe, Donostia, Logroño eta Burlatako taldeen kontra neurtu ahal izango dituztelako indarrak. Gainera, talde horietako bakoitza aurreko postuetan dabil dagokion kategorian. Oparia diogu, hori delako txapelketa honen helburuetako bat,

"Herriko jokalariei aukera ematea normalean jokatzeko ez duten taldeen kontra jokatzeko", klubetik adierazi duten moduan. Baina gazteendako gozagarri bakarrik ez, saskibaloizaleek ere ikuskizun politaz gozatu ahal izango dutelako egun horietan.

Hiru egun saskibaloiaz

Txapelketako bosgarren edizio honetan hiru egunez izango dira partidua, abenduaren 26tik 28ra arte. Lehenengo partidua hilaren 26an, eguaztena, jokatuko dituzte, arratsaldean. Eguena, hilak 27, erabiliko dute egun osoz par-

tiduak jokatzeko eta hilaren 28an finalak egongo dira ikusgai, goizez. Hala, antolatzaileek aurreikusten dute 14:00ak aldera sari banaketa egingo dutela.

Harrobiarendako motibagarri

Gazteen txapelketa aitzakia polita izango da harrobiko gainontzeko jokariak motibatzen. Eta gazteenetatik hasita, gainera, aurtengo berritasunetako bat izango delako Saskibaloia Eskolakoek izango duten protagonismoa (Eta ez torneoan zehar bakarrik, Gabonetan ere hitzorduak izango dituztelako). Izan ere, txapelketako lehenengo egunean, hilaren 26an, goiz osoan zehar Urretxu, Beasain, Tolosa, Azpeitia, Oñati eta Ointxe!-ko saski eskolen arteko topaketak egingo dituztelako Iturripen bertan (guztira 15 partida jokatuko dituzte). Abenduaren 29an, berriz, Iturripen bertan, Ointxe! saski eskolako haurrek Zarauzko saski eskolako bisita izango dute. Horrez gain, saskibaloian jardun nahi duen orok ate irekiko entrenamendu batean parte hartzeko aukera izango dute Josu Larraetegiren ardura; horren gaineko informazio gehiago taldeko webgunean izango dute.


JOSE MARI SALEGI

HARATEGI • URDAITEGIA

Euskal okela, bertan egindako txorizoa eta janari prestatuak

Olarte kalea 20
ARRASATE

Zorionak
eta Urte berri on!



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Santamas jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Kontzertua eskainita amaituko dute urtea Arrasate Musikalekoek

Abenduaren 31n Amaia antzokian eskainiko du bandak emanaldia, 13:00etan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ohitura bilakatu da Arrasate Musikaleko Bandak Amaia antzokian urteari amaiera ematea. Abenduaren 31n izaten da hitzordua, 13:00etan, eta dagoeneko prest dute egitaraua. Aurrena, baina, kalejiran irtengo dira kideak, 11:00etan.

Mikel Markiegik zuzenduta, errepertorio zabala eskainiko diete Amaiara bertaratzen direnei: Borodinen *Igor printzea*, Tchaikovskyren *Zisneen lakua*, Schönbergen *Miss Saigon*, *Oi Bethlehem* herrikoa eta Häendelen *Hallelujah*.

Atzerriko musikagileen lanez gainera, bandak Juan Artzamen-di arrasatearrak konposatu zuen *Arrasate Musikal* pieza ere interpretatutako du. Artzamenetik berak sortu zuen Arrasate Musikal duela 40 urte, eta obra horretan, herriko musika eskolako giroa islatu



Gabon zahar eguneko kalejira. | ARRASATE MUSIKAL

gura izan zuen: "Alaitasuna, talde lana eta adiskidetasuna", antolatzailen esanetan.

Goikobaluk lagunduta

Flauta, oboe, klarinete, saxofoi, tronpeteta eta fliskornoez gainera,

ahotsak ere entzungo dira emanaldian. Izan ere, urte amaierako aurtengo kontzertuan Iñaki Maidaganen gidaritzapean kantatuko duen Goikobalu Abesbatza alboan izango dute 2012a agurtzeko bandako kideek.

Never Surrenderren azken lanaz gozatzeko aukera gaztetxean

Z.V.D.M. | ARRASATE

Bide zuzenetik oker. Horrela deitzen da Never Surrender talde arrasatearraren azken lana, eta gaur aurkeztuko dute hura, 23:00etan hasita, Arrasateko gaztetxean.

Lan berriak arrakasta erdie-tsi du dagoeneko. Horren erakus-

le da Durangoko Azokan labetik atera berria zuten lanak izandako oihartzuna. Hain zuzen ere, 360 kopia inguru saltzea lortu zuten Liburu eta Disko Azokan, eta Ahotsenea gunean egin ziren kontzertuen artetik jende gehien erakarri zuen emanaldietako bat izan zen.

Santamasetako hitzordua

Santamasen barruko hitzordua izango da gaur gauekoa. Hain zuzen ere, jaiaren egitarauaren barruan sartuta dago *Bide zuzenetik oker* lanaren aurkezpen emanaldia, eta doako kontzertua izango da.

Ordu eta erdi inguru iraungo du gaztetxeko hitzorduak eta kantu berri zein zaharrak interpretatuko dituzte jarraitzaileen aurrean Never Surrender taldeko kideek.

Doke taldeak Gasteizko Bernat Etxepare antzokiko oholtza zapalduko du gaur

Z.V.D.M. | ARRASATE

Arrasateko Doke antzerki taldeak Arabako hainbat udalerritan dihardu biran, eta Gasteizen arituko dira kideak gaur, 19:30ean, *Paradisuko atean* antzezlan eskaintzen.

Hain zuzen, azaroaren 17an hasi ziren Doke taldeko lagunak Arabako zenbait udalerritan *Paradisuko atean* antzezlan eskaintzen. Agu-

rainen, Zigoitian eta Amurrión aritu ondoren, Gasteizko Bernat Etxepare antzokiko oholtzara igoko dira gaur.

Orain arteko ikusle kopuruari dagokionez, pozik agertu dira Dokeko taldekideak: "Amurrión, esaterako, 50 lagunetik gora etorri ziren antzezlan ikustera. Oso harrera ona egin ziguten, eta gu ere bikain aritu ginen".

Musika bidez jaialdi solidarioa egingo dute gaztetxean abenduaren 26an

Z.V.D.M. | ARRASATE

Naiara Agredari laguntzeko kontzertua egingo dute abenduaren 26an, eguaztena, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan.

Lau talde arituko dira ekitaldian: Des-kontrol, Arkada Social eta Screamers & Sinners talde arrasatearrak eta Rat-

zinger bilbotarrak igoko dira gaztetxeko oholtzara. Sarrerak aurrez eskura daitezke Dat tabernan.

Naiara Agredak garun-paralisisa dauka, eta kontzertutik ateratako dirua bere egunerokoa eramangarriago egiteko baliatuko dute.

Portaloï taldekoak kaleko giroa alaitzera irtengo dira kantuan

Iluntzean irtengo dira Portaloï taldekoak herriko kaleak alaitzera. Santamasetako egitarauaren barruan irtengo dira, eta gizon eta emakumeek askotariko kantuak intonatuko dituzte, giro paregabea sortzeko asmoz. Portaloïan elkartuko dira, 19:00etan, eta kalez kale joango dira ondoren.

Bertso-desafio saioa egingo dute herriko kaleetan arratsaldean

Santamasen egitarauaren barruan, Arrasateko Bertso Eskolako eta gaztetxeko bertsolarien arteko desafioa egingo da gaur arratsaldean herriko kale eta tabernetan. Batekotasunean trebeagoa nor den erakutsiko dute 19:00etan hasiko den lagunarteko norgehiagokan.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Jose Ramon Otamendi

harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gabon zoriontsuak!

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE

OINETAKOAK

Yoar

Zorionak eta urte berri on!

Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86



Ikastetxe publikoetako ordezkari, irakasle, guraso eta ikasleak, irudi berriarekin. | TXOMIN MADINA

Gabonetan herrian kontsumitzeko dei egin dute udal ordezkariak

Txandak ordutegi bereziak izango ditu zapatu arratsaldeetan, hilaren 24an eta urtarrilaren 5ean

T. MADINA/M. BIKUÑA | OÑATI

Gabonetan herriko denda eta ekoizleen produktuak kontsumitzeko dei egin du Udalak. "Gure iritzi, arduraz eta erantzukizunez kontsumitzea, gertukoarekin, etxekoarekin arduratsu jokatzeari da; zeintzuk gertukoago, eta etxekoago, gure dendari, ostalari, abeltzain eta nekazariak baino?", esan zuen Mikel Biain alkateak.

Txandako ordezkari eta herriko nekazari eta abeltzainekin egindako agerraldian, alkateak esan zuen "kontsumo ohiturak aldatu" egin direla, eta "aldaketa hori enpresa handien menpe egotearen ondorio" dela. Gaineratu zuen Udalak "bertako ekoizle eta merkatarien aldeko konpromisoa" duela.

Ordutegi berezia

Txandak, bestalde, esku artean dituen ekimenen berri eman zuen: produktu pila dituen erakusleiho baten *Pisu eta prezio zehatza* asmatzea; Txanda txartelarekin banatzen dituzten erosketa-bonuak; eta Gabonetarako ordutegi bereziak: zapatu arratsaldeetan zabalik egongo dira dendak, eta hilaren 24an eta urtarrilaren 5ean 14:00etara arte.

Bestalde, *BoMag* aldizkaria aurkeztu zuten agerraldian. Arantza Egoskozabal da bultzatzailetako bat, eta esan zuen aldizkaria bi hilean behin kale-ratuko dutela: "Helburua merkatarien irudia indartu eta herritarrendako informazio praktikoa ematea da".



Udal ordezkariak, Txandako kideak eta beste, agerraldian. | GOIENA

Urgain: Oñatiko eskola publikoaren irudi berria

Errekalde Herri Eskolak, Zuazola-Larraña institutuak, Helduen Heziketak eta Txiki Txokok osatzen dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

"Txiki-txoko Haurreskola, Errekalde Herri Eskola, Zuazola-Larraña Institutua eta Helduen Heziketa, Oñatiko Eskola Publikoa osatzen dugun ikastetxeak, orain arte egin dugun lana eta koordinazioarekin jarraitzeko, eta hein batean elkarlan hori bultzatzeko, izen eta irudi berri batekin identifikatuko gara: Urgain Eskola. Hori izango da gure marka berria". Berba horiekin aurkeztu zuten eskola berria, kide diren ikastetxeetako ordezkariak: tartean zeuden irakasle, guraso elkarteko kide eta ikasleak.

"Lau erreka sorburuan"

Urgainen helburua da Oñatiko Euskal Eskola Publikoari irudi

berria ematea. Dena den, ikastetxe bakoitzak bere izena mantenduko du. "Lau ikastetxe eta bost gune elkartu gara, baina oraingo izenak mantenduko ditugu. Gainera, administrazio arloan independenteak izaten jarraituko dugu", esan zuen Kepa Altubek.

DATUA

838

IKASLE

Horiek dira Urgain Eskolaren barruan dauden ikasleak.

Urgain izenaren gaineko azalpenak ere eman zituzten: "Ura sorrera edo iturburu bezala hartu izan dugu betidanik, eta euskarak ere ur horretatik edan du. Urgain Eskola osatzen dugun ikastetxeek lau erreka ditugu sorburuan: Korta erreka Larrañan, Olan erreka Txiki-txokon, Arranoaitz erreka Errekalden eta Oñati erreka Zuazolan".

"Zerbitzu integrala"

Urgain Eskolako ikastetxeetan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta nagusien hezkuntza ematen dituzte. "838 ikasle eta familiari ematen diegu zerbitzu integrala 96 irakasle. Ikasleak bere osotasunean hezteko", diote.



KARATE SAILA

Aloñako karatekak, maila ona erakusten

Aloña Mendi karate saileko neska-mutikoei maila ona dutela erakutsi zuten, beste behin, Gabonetako infantil mailako eskolarteko txapelketan. Hondarribiko Jostaldi pilotalekuan jokatu zen txapelketa hilaren 16an, eta emaitza onak lortu zituzten, kata eta kumite modalitateetan. Uxue Guridi lehena eta hirugarrena izan zen bi proba ezberdinetan; Joakim Egaña eta Iñaki Artzuaga bigarren

lekuan sailkatu ziren eta Mikel Untzurruntzaga eta Aitor Leza hirugarren lekuetan. "Lan bikaina egin dute. Oso pozik gaude emaitzekin. Entrenamendu saio onak egiten dituzte, eta hori ezagun da txapelketetan", esan digu karate saileko presidente Ricardo Arrizabalagak. Goiko argazkian dituzue Hondarribiko proban parte hartu zuten karatekak eta euren entrenatzailea: Alberto Lera.

Bi bizikleta elektriko herrian ibiltzeko

M.B. | OÑATI

Udalak herrian ibiltzeko bi bizikleta elektriko erosi ditu. Ia 4.000 euroko aurrekontua dute, baina EEERi dirulaguntza eskatu dio Udalak, eta oraindutakoaren %20 berreskuratzea aurreikusten du.

Bizikleta horiek udal langile eta ordezkariak erabiltzeko dituzte herrian mugitzeko. Orain arte, nork bere autoa erabili izan du; bada, aurretik, bizikletan mugituko dira. Horrek ekarriko du autoz egindako bidaia %30 jaistea, gas isuriak %25 jaistea eta soinu kutsadura murriztea.

Etxeko txikienak Olentzeroren zain daude, Gabon usainean

Astelehenean 17:30ean helduko da Oñatira, umeen gutunak jasotzera

MIREIA BIKUÑA | OÑATI
Oporrak hartu berri, eta nork bere ikastetxean Gabonak ospatu ondoren, herriko neska-mutiko guztiek hilaren 24a dute gorritz markatuta. Egun horretan helduko da Olentzero Oñatira, 17:30ean. Ota-
dui zuhaiztian egingo diote ongie-torria Jose de Azpiazu musika eskolako kideek. Euren eta Martiñola taldekoen laguntzarekin kalerik kale ibiliko da umeei gozokiak banatzen.

Azken geldialdia Foruen plazan egingo du Olentzerok. Han umeen gutunak jasoko ditu. Azken urteotan haren laguntzaile Bizarzurik jaso izan ditu eskutitzak, baina aurtun, Olentzerok berak jasoko ditu.

Hilaren 24ko protagonista opariak banatzen hasten denean, Udal Musika Bandak eta musika eskolako haize taldeak kontzertua egingo dute Foruen plazan, 19:00etan.

Hainbat Gabonetako kontzertu
Olentzeroren bisita da herriko txikienek gehien espero dutena, baina badira beste ekitaldi batzuk, Gabon usaina dutenak. Gaur, adibidez, Sound Proyect bikoteak disko-festa egingo du gaztelekuan, 18:00etatik 21:00etara arte.



Olentzero, umeei gozokiak banatzen. | GOIENA

Bihar, bestalde, Oñati Abesbatzak Gabonetako kontzertua egingo du agustindarren elizan, 20:15ean. *Gabona dut anuntzio*, *Birjiña Maite*, *Sehaska baten* eta *Gauaren erdian* abestuko dituzte. Azken horretan, Oihana Diaz eta Amaia Azpiazu izango dira bakarlariak.

Era berean, musika eskolako txistulari eta soinu-joleek eta Aita Madina Txistulari Txaldeak Gabonetako kontzertua egingo dute domekan, 19:00etan, udaletxeko arkupeetan.

Zinema euskaraz

Aste bukaeran zinema-emanaldi bereziak egongo dira kultura etxeko aretoan. Ohiko zinema komertzialaz gain, euskarazko pelikulen emanaldi bereziak iragarri ditu Kultura Sailak. *The wish fish* pelikula hilaren 26an eta urtarrilaren 2an, biak ala biak eguaztenean, emango dute, 17:00etan. Gorka Vazquez eta Iban Onekak zuzendutako pelikula adin guztiendako neska-mutikoendako da, eta Opil mutikotxoaren istorioak kontatzen ditu.

Urteko kirolari onenak omenduko dituzte

Oñati Kirol Sarien banaketa ekitaldia 19:00etan egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan

M.B. | OÑATI
2012ko kirolari eta kirol talde onenak saritu eta omenduko dituzte gaur, egubakoitza. Oñati Kirol Sariak 2012 ekitaldian zazpi sari banatuko dituzte: bost, urtean zehar egindako merituak eta lortutako emaitzak aintzat hartuta; eta beste biak, berriz, kirol sari bereziak dira.

Urtero moduan, bakarkako kirolariak eta kirol taldeak, entrenatzaile onena eta kirolaren alde egindako lana sarituko dituzte.

"Maila handiko kirolari eta taldeak daude. Beste behin, herriko kirolariek egindako lana ona eta handia izan da", esan digu Oskar Carrascalek, Kirol teknikariak.

Hori da, hain zuzen ere, baloratzen dutena: urtean zehar egindako lana. Udaleko Kirol Zerbitzuko kideek eta Oñati Irratiko eta *Kontzejupetik* aldizkariako kazetariak aukeratzen dituzte sarituak. "Hasteko, proposamenak egiten ditugu, eta gero, bakoitzaren merituak zehazten ditugu.

Batzuetan ez da erraza bakarra aukeratzea. Horren adibide aurtengo kirol sari nagusia da. Bi kirolari omenduko ditugu", dio Carrascalek.

Kirol sarien banaketa 19:00etan hasiko dute. Oñatiko kirolariek egindako lanaren errepasoa egin ondoren, sariak banatuko dituzte. Bukatzeko, luntxa egingo dute. Saririk jaso ez duten hainbat kirolariren aipamenak ere egingo dituzte. "Oñatiko kirola osasuntsu dago", diote antolatzailleek.

Iazko sarituak

Iaz Xabier Luis, Markel Irizar, Jon Urtzelai, Aloña Mendiko igeriketa saila, Jabi Gomez eta Angel Mari Etxeberria saritu zituzten. Gainera, Iban Altube zena omendu zuten.

Ordutegi bereziak kiroldegiko fitness eta gimnasia zerbitzuetan

M.B. | OÑATI
Zubikoa kiroldegiko fitness eta gimnasia zerbitzuek ez dute etenik izango Gabonetako oporetan. Baina, kiroldegiak izango duen ordutegia aintzat hartuta, ordutegi bereziak zehaztu dituzte horietarako. Hori horrela, hilaren 26an, 27an eta 28an eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an ikastaroak emango dituzte, baina ezohiko ordutegiekin. Norberak aukera dezake zein egun eta ordutan egin ikastaroa —ez du zertan ikasturteko ordutegia aukeratu.

Hau da, normalean, fitb-bike arratsaldean egiten duenak goizeko ordutegia aukera dezake, eta alderantziz.

Ordutegi bereziarekin, irailan hasitako ikastaroetan etenik ez egotea lortu gura dute.

Bi asterako ordutegi berezia izan arren, bi asteak ez dira berdinak: ez daude eskola berak. Hori horrela, kiroldegiko sarre-ran dauden informazio-orrietan kontsultatzea aholkatu dute arduradunek.

Kiroldegiaren ordutegia

Bestalde, Zubikoa kiroldegiak ordutegi berezia izango du Gabonetan: hilaren 24an eta 31n 07:30etik 14:00etara arte zabalduko dute; hilaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da; eta gainerako egunetan, ohiko ordutegiarekin.

Bazkari koloretsuarekin eta pregoiarekin inauguratuko dute Antixena gaztetxea

M.B. | OÑATI
Osasunez urratu! oihukatuz inauguratuko dute Antixena gaztetxea bihar, zapatua. Egun osoko festa egingo dute. 12:00etan batukada eta poteoa egingo dituzte kalerik kale. 14:00etan sukaldariak pregoia egingo dute, eta segidan, bazkari koloretsua egingo dute gaztetxean bertan.

Arratsaldean *Gaztetxolandia* egingo dute, eta 22:00etan kontzertua. Inaugurazio ekitaldian batutako dirua euskal preso politikoendako izango da.

Gainera, logotipo berria aurkeztuko dute. Ane Agirrek egin du eta gaztetxeko faktoriak sortutako produktuetako irudia izango da.

Erakusleiho dotoreenen artean 4.700 euro banatuko dituzte bihar, 13:30ean, udaletxean

V. erakusleiho lehiaketako sari banaketa ekitaldia bihar egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 13:30ean. 42 parte-hartzailearen artean onenak, dotoreenak sarituko dituzte. Zazpi sari emango dituzte: guztira, 4.700 euro. Gainera, herritarrek euren gustukoena aukeratu dute, eta botoa eman dutenen artean Gabonetako saski bat zozketatuko dute. Hori ere udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo dute, sari banaketa bukatu ondoren.

Hartza eta lehoia ikusi eta historiaurreko animaliei buruzko diaporama, umeendako, Arrikrutzen

Ekintza berezia egingo dute hilaren 27an Arrikrutzen. 3 eta 8 urte arteko neska-mutikoendako *Arrikrutz*, *antzinako animalien artean* delako proposamena egingo dute. Harrera-gunean historiaurreko animalien gaineko diaporama ikusi, kobazulora bisita egin eta moztarrok egingo dituzte. Interesatuak aldeztu aurretik eman behar dute izena 943 08 20 00 telefonoan. Ekintza 10:30ean hasiko dute Arrikrutzeko harrera-gunean.



Valentziako laranjak Arrasaten!

Jaso berriak, Albalat de la Ribera-ko uzta propioetatik.

Ostiralero Arrasateko azokan.

Interneten erosi beharrean, eros itzazu Arrasaten bertan.



Bedelkarreko eta Udaleko ordezkariak, presntsaurrean. | ANABEL DOMINGUEZ

Gaurtik bertatik prest egon beharko dute erakusleihoeak

Urtarrilaren 7ra arte iraungo duen erakusleihoei lehiaketan denda guztiak hartuko dituzte aintzat

XABIER URTZELAI | BERGARA

Abian da Gabonetako erakusleihoei lehiaketa. Dendek gaurtik, egubakoitza, izan beharko dute erakusleihoea gertu, urtarrilaren 7ra arte, eta parte hartzeko ez da izenik eman behar.

Antolatzaileek adierazi dute sariiduna aukeratzeko kon-tuan izango dituztela mezuaren irudimena, originaltasuna, erakusleihoearen eraginkortasuna eta kalitatea. Guztira, lau sari izango dira, lehenengo hirurak epaimahaiko kideek emango dituzte eta laugarrena (100 euro), herritarrek. Sari *popular* hori emateko, herritarrek dendetan emango zaien esku-orria bete, eta udaletxean utzi beharko dute,

Olentzeroren eta Mari Domingi-ren ondoan egongo den postontzian (boto-emaleen artean 150 euro zozketatuko dira).

'Peter Pan'-en bila, dendetan
Bestalde, *Peter Pan* musikaren harira, Udalak eta Bedelkarko merkatariek beste ekimen bat jarri dute martxan. Hala, herriko merkataritza-establezimendueta-ko batean *Peter Pan*-en irudi edo elementuren bat egongo da gordeta. Irudi hori zein dendetako erakusleihoean dagoen asmatzen duten guztien artean 150 euroko diru-saria zozketatuko da, Bedelkarko dendetan gastatzeko. Erantzun horiek ere udaletxeko postontzian utzi beharko dira.

Nafarroako produktuak San Antonion erakusgai

Napar Feria egingo dute bihar, eta eguna osatzeko askotariko hitzorduak antolatu

X.U. | BERGARA

Urtero bezala, Gabonen atarian, Nafarroako produktuak ezagutzera emateko feria antolatu du Gure Ametsa elkarteak. Bihar, zapatua, egingo dute Napar Feria (10:30etik eguerdira arte), eta, Nafarroako produktuak erakustea gainera, feria girotzeko askotariko hitzorduak antolatu dituzte.

San Antonioko plazatzon

Napar Feriako postuak San Antonioko plazatzon jarriko dituzte, eta, produktuak erakustea gain, azoka osatzeko eta boro-biltzeko bestelako ekintzak ere egongo dira. 11:00etan txistulariek alaitutako kalejira egongo da eta 11:00etatik 13:00etara bitartean, elkartearen arteko V. sukaldaritza lehiaketa jokatu dute. Lehiakideek patatak bakailaoa-ekin prestatu beharko dituzte

eta patatak, bakailaoa eta olio antolatzaileen kontura izango dira. Lehenengo sailkatuek txapela eta Naparbideak produktu sorta jasoko dute eta bigarrenak eta hirugarrenak, Naparbideak produktu sorta. 11:30ean meza egongo da kaperan, eta musika ere egongo da ferian: 10:30etik 14:30era, Angie DJak musika jarriko du.

Umeendako jolasak

Eguerditik aurrera umeendako jolasek girotuko dute feria, 12:00etan hasita poneyak, zezentxoak eta jolasak egongo dira -eta. 13:00etan, Gabonetako postalen VIII. lehiaketaren sariak banatuko dituzte eta 13:30ean, Alai Taldeak emanaldia egingo du. Amaitzeko, ordu horretan, Gure Ametsak jarritako tabernan pintxoak banatuko dituzte.



Herritarrak, postuko produktuei begira. | GOIENA

Gaurtik hasita, Gabon kontzertuak

X.U. | BERGARA

Musika Eskolako Gabonetako kontzertua izango da gaur pilotalekuan (18:30). Eta bihar, zapatua (22:30), Udal Musika Bandak, Aritzeta Abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak eta Orfeoia Gabonetako kontzertua eskainiko dute.

EGITARAUA

Udal Musika Banda:

► *The adventures of Baron Munchausen* (B. Apperment)

Aritzeta Abesbatza:

- *Tollite Hostias* (Sain-Saes)
- *Beati quorum via* (Standford)
- *Gabriels Oboe* (E. Morricone)
- *Belongo estalpe*. (M. Bastida)

Bergarako Orkestra Sinfon.:

- *The water is wide* (Herrikoia).
- *Ben* (D. Black).
- *The lord of the dance* (R. Hard.).

Bergarako Orfeoia:

- *O gau Santu* (A. Adam).
- *Chorus of Hebrew*. (G. Verdi).
- *Anvil chorus* (G. Verdi).
- *Kala Kalla* (E. Withacre).

Denak batera:

- *At world's end* (H. Zimmer)

Gaztetxean egutegi mardula dute Gabonetarako

A. BARRUSO | BERGARA

Gabonetan ez da aspertzeko denborarik izango Bergarako gaztetxean. Egitarau mardula antolatu dute, eta, besteak beste, Mojito Gaua, Karaoke Gaua eta Afari Mundiala egingo dituzte. Hitzordu azpimarragarrien artean daude (*goiena.net*-en duzue egitaraua osorik) hilaren 24an egingo duten Mojito Gaua, Elvis Caino eta LT Moonlight DJekin; abenduaren 27an egingo duten sukaldaritza tailerra eta ondoren egingo duten afari "mundiala"; abenduaren 28an egingo duten trikitizaleen Gaztaina-erre Eguna (18:00), eta Bergarako Txapa Irratiko *Xelebregara* irratsaio-koek antolatuko duten Inuzente Gaua (23:00). Hilaren 29rako salsa ikastaroa prestatu dute, eta hilaren 30ean Xabier Montoiaren kontzertua izango da (19:00). Beste hitzordu askorekin batera mendi irteerak ere antolatu dituzte, baina eguraldiak baldintzatuko ditu hitzordu horiek.

AZKEN FASEA

SAN LORENTZO AUZOA

B E R G A R A

167.500€-tik aurrera
27.869.655 pta

Ez itxaron gehiago!
BEZ a %4
abenduaren 31 arte

1, 2 eta 3 logela, sukaldea barne

Garaje eta trastelekuak

Etxebizitzen bukaera

2012

Eraikitzailea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES



Sustatzailea



Argibideak
eta Salmenta

943 424 430

www.ormak.es

Gabonetako apaingarriekin pozik Zero Zabor

A.B. | BERGARA
Bergara Zero Zabor taldeak Udala "txalotu" nahi izan du Gabonetako apaingarriak material berrerabilgarriarekin egiteagatik. "Ekintza sinple bezain eraginkor honekin gauza asko lortzen dira", adierazi dute.

Hondakinak berrerabiltzea da, Zero Zabor-en ustez, lortutako puntuetako bat. Bigarrenik, aurrezte, "orain arte jarri izan diren argiekin energia eta diru asko xahutzen zelako"; eta azkenik, lanpostuak sortzea: "Nahiz eta hila-beteko kontua izan, lanpostuak sortu dira", azaldu dute.

Ikastetxeak aurten ere elkarrekin kantuan

A.B. | BERGARA
Abenduaren 24an Bergarako ikastetxeetako haurrak kantuan aterako dira herriko kaleetan zehar. Goizean hasita, ikastetxe bakoitzak bere ibilbidetxo egingo du, 11:30ean frontoi aurrean elkartu arte. Bertan, Olentzero eta Mari Domingi izango dituzte zain monolito aurrean, eta, haur guztiak elkartutakoan, hiru kantu abestuko dizkiete umeei. Ondoren, kalejiran jarraituko dute, ibilbide hau eginda: Ibargarai kalea, Herri Lagunak, Domingo Irala, Irizar ibiltokia, Barrenkaletik San Martin plazara.

Equok antolatutako hitzaldia kultura etxean hilaren 27an

Besteak beste, herri kontsul-ten beharraz, *Oparitu zuhaitz bat* ekimenaz, Fiare banku etikoaz eta GoiENER koope-ratiba energetikoaz hitz egingo dute hitzaldi horretan. Kultura etxean izango da, eta 19:30ean hasiko da.



Autobus geltokiaren parean dauden Ibargarai kaleko azken etxebizitzak. | GOIATZ ARANA

Bergara Garbia pozik dago poltsen protestak izandako erantzunarekin

Gobernuak herritarrek gonbidatu ditu parte-hartze prozesuan sartzera

G.A./A.B. | BERGARA
Atez ateko hiri hondakinaren bilketaren kontra eta bosgarren edukiontzia-aren alde 4.761 sinadura batu zituen Bergara Garbia plataformak. Bada, atez ateko bilketaren aurka eta Udalak hartutako erabakiarekiko desadostasuna azaltzeko protesta egiteko deia luzatu diete herritarrei. Atez atekoaren kontra dauden bergarar guztiei eskatu diete paperez betetako zabor poltsak ipintzeko etxeko leiho eta balkoietan. Bada egubakoitzetik Bergarako hainbat etxebizitzetako balkoietan agertu

dira poltsok. Modu horretan, protesta egin nahi dute herritarrek, hondakinak atez ate jasotzen sistemaren ondorioz, herrian barrena jarriko dituzten zintzilikariek herria itsusitu eta zikindu egingo dutelako, plataformako ordezkarien hitzetan. Gaineratu dute atez atekoa "geldiarazteko denen laguntza ezinbestekoa" dela eta "guztien artean" lortuko dutela.

Bergara Garbia, pozik
Atez atekoaren kontrako plataformatik eskerrak eman nahi dizkiete euren deia-ri erantzun dieten

herritar guztiei, eta ekimenarekin bat egitera animatu nahi dituzte hala egin ez duten bergararrei. "Argi izan behar dugu gure balkoietan zabor poltsak ipintzen ez baditugu, gure atariaren aurrean edo atarian bertan ipiniko dizkigutela. Poltsa horiek gainera benetakoak izango dira, usain txarra eta kiratsa darien horiek", adierazi dute prentsa ohar baten bidez. "Balkoirik ez poltsa gabe! Herri galdeketa orain!" esanez amaitu dute adierazpena.

"Entzun dugu herriaren iritzia"
Udal Gobernuako ordezkariak GOIENARI egindako adierazpenetan azaldu dute entzun dutela herritarrek protestarekin esan dutena: "Entzun dugu herriak esan duena eta atez atekoaren kontrako sinadurak aurkeztu zirenean ere entzun genuen, bai noski. Dena dela, zuzenean entzun nahi ditugu herritarren iritzia. Pasa den astean esan genuen bezala urtarrean hondakinaren bilketa sistemarekin lotuta parte-hartze prozesu bat ipiniko dugu abian eta bergarar guztiak gonbidatzen ditugu bilera horietan parte hartzera".



Labegarietan ere hainbat etxebizitzatan ikus zitezkeen poltsak. | G.A.-



EDURNE GABIRIA
BERGARA

"Originaltasuna erakutsi dute, horren zalantzarik ez dago, baina ni atez ateko bilketa sistemaren alde nago argi eta garbi. Ez daukat askorik esateko, guztiek daukatelako protesta egiteko eskubidea. Ez dut uste honek Udalaren erabakia aldatuko duenik, baina uste dut zerbait pentsatu beharko dutela eta adostasunera iritsi beharko direla".



MARIA LIZARRALDE
BERGARA

"Nik ere ipini ditut poltsak. Ez naiz oso aditua, baina orain arte zaborra erre egiten zuten, ezta? Atez atekoarekin zer egin behar dute? Uste dut jende gehiagok ere ipiniko lukeela poltsa, baina lotsagatik ez dutela ipintzen. Dena dela, uste dut honek ez duela ezer aldatuko. Erabaki hartuta dago".



CESAR CEBRIAN
BERGARA

"Atez atekoaren kontra nago, erabat. Badakit errauskailua ez dela oso irtenbide ona, baina ezinbestekoa da, beti egongo delako birziklatu ezin daitekeen materiala. Nik ere ipini ditut poltsak lehioetan. Udalaren eta prozesu honen kontra egiteko modu bat da, ez diotelako herriari galdetu".



NAGORE AGIRRE
BERGARA

"Harrituta gelditu nintzen. Kalera irten eta hasieran ez nintzen konturatu, baina gero, poltsa guztiak ikusi nituenean, harrituta gelditu nintzen. Toki batzuetan, gainera, asko daude. Ez dut uste protestek ezer aldatuko dutenik. Erabakia hartuta dagoela uste dut, eta aurrera egingo dutela".

Azaroaren 24an Bergarako tostoi eta errelleno dastaketan parte hartu zenuten guztioi,

ESKERRIK ASKO!

Ondo pasau Gabon jaiak eta 2013 on!

Parte-hartze prozesua hasiko du urtarrilean Udalak hondakin bilketaren harira

Hondakinen %70 birziklatzea ahalbidetuko duen bilketa proposamena aurkeztuko diote herriari

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aurreko astean Jesus Elortza alkateak eta Leire Iruin Ingurumen zinegotziak Bergara Garbia plataformako lau ordezkariarekin egindako batzarrak zeresana eman du asteon ere.

Elortza alkateak adierazpena irakurri zuen asteleheneko ohiko osoko bilkuran, batzarraren balorazioa eginda: "Bilera bera egite hutsa oso baikorki baloratzen dugu; izan ere, nekez elkar uler dezakegu, ez badugu elkarrekin hitz egiten. Eta, beraz, norabide onean egindako urratsa dela deritzogu, eta, norabide horretan urratsak egiten jarraitzera deitzen ditugu herritarrak. Are gehiago, poztan gaitu bilera lasaitasunez eta tonu atseginarekin egin izanak, eta, gainera, hainbat eta hainbat gaitan adostasunak egon badaudela jakiteak. Horregatik, dei egiten diogu Bergara Garbiari adostasun horietan sakontzera eta batzen gaituzten elementuetan indarra jartzera, eta ez alderantziz".

Parte-hartze prozesua abian

Liskarrik ez dutela nahi ere esan zuen Elortzak, birziklatzearen aldeko akordio politiko eta soziala baizik, "eta adostasun hori herriar guztiekin eraiki nahi dugu", gehitu zuen: "Guztiok ados al gaudu %70 birziklatzeko helburua jarri behar diogula Bergarako herriari? Horretan ados bagaude, goazen nola egin behar dugun guztion artean erabakitzen".

Norabide horretan, "Debagoieneko Mankomunitateak eta Bergarako Udalak helburu hori lortzea ahalbidetzen duen hondakinen bilketarako herriari aurkeztuko diogun proposamen bat landu dugu", esan zuen.

Hala, urtarrilean "parte hartze prozesu zabala" jarriko du martxan

Udalak, "proiektu horren erai-kuntzan guztiok zeresana izan dezagun, eta guztion artean erabaki dezagun". Era berean, hondakinen "kudeaketa arduratsua eta eramangarria gauzatu nahi" dutela ere esan zuen, "herriarekin eta herriarentzat" eta gure ondorengoei "Bergara garbiagoa eta osasuntsuagoa uzteko betebeharrak politikoa, instituzionala eta etikoa" dugula, beti ere, "krisi ekonomiko latz honetan, dirua taxuz eta xahutu gabe kudeatzeko betebeharrak dugula ahanzi gabe".

"Sentsibiltate ezberdinak" batzeko ahaleginean, gaur, egubakoitza, eguerdian Bergara Garbia plataformako ordezkariarekin beste batzar bat dutela azaldu zuen alkateak. Bergara Zero Zabor-ekoekin ere batzartu nahi dute eta EAJko zinegotziei ere egin zien gonbita.

Bergara Garbia, kritikoago

Atez atekoaren kontra eta bosgarren edukiontzia-aren alde dagoen Bergara Garbia plataformak ere alkatearekin egindako batzarraren balorazioa jasotzen duen oharra kaleratu du, eta alkatearen jarrera kritikatu. Batzar hura "adeitsua" izan zela nabarmendu zuten batzarraren biharamunean

bi aldeek, eta "komunean zenbait puntu" dituztela ere bai. Oraingo oharrean, baina, kritikoago agertu da Bergara Garbia.

"Ordu eta erdiko bilera izan zen eta ia-ia sartu ginen erara ateratzen ginen udaletxetik" diote oharrean. Izan ere, haien ustez, alkateak ez zuen "ganorazko erantzunik eman" planteatutako galderari. "Adibidez: 4.691 bergararrek atez atekoaren aurkako oihu formala eta bosgarren edukiontzia-aren aldekoa egiten dutela-eta, zergatik ezin da kontsulta bat egin Bergaran?". Eta gehitzen dute: "Alkatearen esanetan, behartu egin behar da jendea gauzak egiteko, Francok egiten zuen erara, bere hitzetan atez atekoa da aukera bakarra nahiz eta ezin duak eta adineko jendea baztertu eta isolamendura kondenatu. 5. edukiontzia-arekin eta birziklapen on batekin erraztu daitezke arazo gehienak. Bitartean, zigortu eta behartu da alkatearen alternatiba. Gurea, aldiz, kontzientziatzea, hezte, zabor gutxiago egitea, birziklatzea eta 5. ontzia jartzea".

Bidea herri kontsulta dela esanda, plastikozko poltsen protestarekin jarraituko dutela ere jakinarazi zioten alkateari.



Oiarbide eta Gallastegi, eguazteneko prentsaurrekoan. | GOIATZ ARANA

Mankomunitateak atez atekoari buruzko erabakiak geldiaraz ditzala eskatu dio EAJk alkateari

"Alkateak bilkuran eskainitako parte-hartze prozesua 'un brindis al sol' dela uste dute

G.A./M.B. | BERGARA

Aintzane Oiarbide EAJko zinegotziak eta Uri Buru Batzarreko presidente Victoriano Gallastegik prentsaurrekoa egin zuten eguaztenean. Asteleheneko osoko bilkuran Elortza alkateak hondakin bilketari buruz irakurritako adierazpenaren harira egin zuten. Bertan, alkateari eskaria egin zioten: "Planteatzen duen parte-hartze prozesuaren ondorioz, benetan denon artean erabakiko badugu bilketa sistema, Mankomunitateko lehen-dakariordea denez, berehala geldiaraz ditzala atez ateko hondakin bilketari lotuta dauden lehiaketa, inbertsio eta adjudikazioak benetako parte-hartze prozesua amaitu arte, behintzat". Eskariari egun berean eman zioten sarrera udaletxean, prentsaurrekoaren aurretik.

"Un brindis al sol"

Oiarbidek azaldu zuenez, alkateak asteleheneko bilkuran "guztien arteko parte-hartze prozesu bat eskaini zuen, Bergaran ezarriko den hondakin bilketari onena zein den erabakitzeko. Sentsibiltate guztiak batu nahi ditu, eta gu ere gonbidatu gintuen". Baina eskaintza hori "un brindis al sol" dela uste dute -alkateari ere hala esan zion Oiarbidek asteleheneko bilkuran-, "nahiz eta erabakia denon artean hartu nahi ei dutela erantzun ziguten". Eta Oiar-

bide gehitu zuen: "Mankomunitateak ateratu ditu jada zintzilikario, kubo, komertzioetarako ontzi eta garraioa kontratatzeko pleguak. Hau da, hartzeaz daude 1,6 milioi euroko aurrekontua duen lehiaketa esleitzeko erabakia. Eta lehiaketa gehiago ateratzeko asmoa dute 18 milioi bideratuta".

"Bilduk erabakia hartuta du"

Mankomunitatean gehiengo Bilduk duela eta Elortza alkatea eta beste bi ordezkari han daudela gogora ekarrita, hurrengo galdera ere planteatu zuen: "Zertara dator Elortza alkatea esatera parte-hartze prozesu bat zabalduko duela denon artean sistemarik eraginkor eta onena erabakitzeko?". EAJrendako argi dago: "Bilduk erabakia hartuta du eta herria hilabete batzuetan entretenituta egoteko estrategia ipini nahi du martxan. Benetako herritarren parte-hartzea bermatzeko era bakarra herri galdeketa da".

EAJk eskatuta aurreko astean egindako bilkura monografikoaren ondoren hondakin bilketa sistemari dagokionez gauzak asko aldatu direla uste dute, eta, zentzu horretan, Bergara Garbiak bultzatutako plastikozko poltsen protesta ekimena txalotu zuten: "Iritzia emateko era bat da, ez da ez agresiboa, ez konfrontatzailea".

ESANAK

"Ez dugu nahi liskarrik, birziklatzearen aldeko akordio politiko eta soziala baizik"

JESUS ELORTZA | ALKATEA

"Alkatearen esanetan, behartu egin behar da jendea, Francok egiten zuen erara"

BERGARA GARBIA

Sahararrendako janaria eta dirua batzeko kanpaina abiarazi dute

Urtarrilaren 19ra arte, arroza, lekaleak, azukrea, atuna eta sardinak oliotan, azukrea, pasta, helduendako pixoihalak eta olioak batuko dituzte leku hauetan: janari-dendetan, udaletxean, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta Ipintza institutuan. Diru sarrera ere egin daiteke Euskadiko Kutxan (3035 0009 13 0091113300) eta Kutxan (2101 0070 86 0124795568).

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua

- IBILGAILUA ERAMATEN DIZUGU:
 - LANTOKIRA
 - ETXEO ATARIRA
 - AIREPORTURA...

- ETORRI GUREGANA ETA GABONETAKO DESKONTUAK DISFRUTA ITZAZU!!!


JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON OPA DIZUEGU!!!!

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

943 71 66 52 / 619 44 71 75

Info.goienarent@i-rent.es
www.goienarent.com

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behe

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

1.741 abonatu ditu kiroldegiak egun, herritarren %26

'Zatoz!' kanpaina jarri dute abian, eta 6.000 sarrera banatuko dituzte debalde probatzeko

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ia lau hilabete pasatu dira Ibarra kiroldegia martxan jarri zutene-
tik, eta hilabeteotako balorazioa egin eta Gabonetako kanpainaren berri eman gura izan dute.

1.741 abonatu ditu kiroldegiak egun, 888 gizonezko (%51) eta 853 emakumezko (%49); aretxabale-
tarren %26, hain zuzen: "Oreka lortu dugu gizon eta emakumeen artean eta osasunaren zainketa-
ra bideratutako estrategiak frui-

tua eman du", jakinarazi zuen Iker Etxeberria zuzendariak.

Jarduerei dagokienez, 17 ezber-
din eskaintzen dituzte: areto bizi-
kleta, yoga, pilates, urgim... 34 talde dabilta horietan, 400 bat lagun. Eta kirol elkarteek ere badute lekua bertan: Leintz esko-
la kirolak; UDAko areto futbolak eta karateak; Debagoieneko eska-
latzaileek... Bailara izaerako kiroldegia dela gaineratu zuen, inguruko herritarren abonatuak

dituztelako, eta pozik azaldu zen erabiltzaileek "balorazio positiboa" egin dutelako.

Obrarekin dituzten arazotxoak direla kiroldegiaren ahulgune bakarra aipatu zuen, "baina hori hobetzeko lanean gabiltza".

Gabonetako kanpaina

Zatoz! leloarekin kanpaina egin-
go dute Gabonetan eta dagoene-
ko erabiltzaileekin egindako spota ematen hasita daude. Gai-
nera, Youtube kanalean erabil-
tzaileen testigantzak jaso dituzte: "Bailarako instalakuntza onenak, tratu ona, erosotasuna, prezioa, kalitatea, berrikuntzak...". Eta argibide guztiokin esku-orriak banatuko dituzte egunotan etxe-
rik etxe.

Gainera, instalakuntzak eza-
gutzeko 6.000 sarrera banatuko dituzte abonatu ez direnen artean debalde sartu eta ezagut dezaten. 10 sarrerako bonoak ere gertatu dituzte Gabonetan oparitzeko.



Iker Etxeberria Ibarra kiroldegiko zuzendaria fitness gela. | M.A.

Jarduera berriak

Urtarriletik aurrera hiru jardue-
ra berri izango direla iragarri zuen: Capoeira; Tai chi; eta Step. Horien prezioa izango da gaine-
rakoena legezkoa, 12,46 euro (BEZ

barne); eta lehen hilabetean debalde probatzeko aukera dago.

Langileen tarifa murriztuan -astelehenetik egubakoitzera (08:00-16:00)- aldaketa dago: 21,18 euro izango da prezioa.

Gabonetako parkea egongo da kiroldegian

Hilaren 26an eta 27an izango da, eta Poxpolin taldeko gazteek antolatu dute

M.A. | ARETXABALETA

Sasoi baten, kirol etxe zaharra bota aurretik, Kultura sailak antolatzen zuen Gabonetako jolas parkea bueltan dator aurren. Poxpolin taldeko gazteen buru-
tazioa izan da, eta irailetik anto-
latzen lanetan jardun ondoren gertu daukate guztia datorren asterako. Abenduaren 26ean, eguaztena, Ibarra kiroldegiko kantxan egongo dira jolasak, eta 27an, eguna, igerilekuan.

"Gu umeak ginenean kirol etxe-
ko jolas parkean ibilitakoak gara, eta uste dugu Gabonetara-
ko antolatutako ekintzetan hutsu-
ne handia zegoela azken urteotan. Horregatik, udaleku irekietan begirale lanetan jardundako hain-
bat gazte elkartu eta hori anto-
latzen ibili gara", argitu dute. Gazteria Sailekoek egin dizkiete bitartekari lanak eta kiroldegiko kideen laguntza ere izan dutela jakinarazi dute.

Herritar guztiek ordaindu

Abenduaren 26ean, eguaztena, jolasak izango dituzte kiroldegi-
ko kantxan 2 eta 12 urte arteko neska-mutikoek (11:00-13:00 eta 17:00-20:00): gaztelu puzgarriak, tailerrak, eskulanak, mahai-futbol txapelketa, karaokea...

Eguenean, hilak 27, ostera, igerilekuan izango dituzte puz-
garriak eta jolasak. Eta adinaren arabera taldetan banatuta joan ahal izango dira bertara: 11:00e-
tatik 13:00etara, 0 eta 7 urte artekoak (nagusiek lagunduta); 17:00e-
tatik 18:30era, 7 eta 9 urte artekoak; eta 18:30etik 20:00etara, 10 eta 13 urte artekoak.

Prezioari dagokionez kiroldegi-
ko abonatuak debalde izango zutela iragarri arren ez da hala izango; sarrera guztiek ordaindu beharko dutela jakinarazi du Gazteria Sailak, "gainontzeko kiroldegietan ere ez da bereizke-
tarik egiten bazkide direnen eta ez direnen artean". Hona prezioak: hilaren 26ko parkerako sarrera, 5 euro; eta hilaren 27an igerile-
kurako, 4 euro. Bi egunetarako txartela hartuz gero, 7 euro.



Poxpolin taldeko gazte batzuk joan den egubakoitzean Arkupen. | M.A.

Bertso eskolako kideak baserriz baserri joango dira kantuan Gabon egunean

M.A. | ARETXABALETA

Helduen bertso eskolako kideak, trikitilarien laguntzarekin, baser-
riz baserri ibiliko dira kopla kantuan, datorren astelehenean, abenduak 24.

Iaz egin zuten lehenengoz, Urko Egaña bertso-eskolako irakasleak proposatuta; eskolako kideek gustura hartu zuten buru-
tazioa, eta guztien artean bultza-
tu eta antolatu zuten ekimena. "Aurreko urteko baserritarren harrera apartagatik eta guk kopla

kantuan taldean esperientzia bikaina bizi genuelako aurren ere errepikatu egingo dugu", jakinarazi dute.

Iaz, Larrino eta Goroeta inguru-
ruek ziren kantuan eta aurren gainontzeko auzoetara heltzen saiatuko direla jakinara-
zi dute, goizean goiz hasi eta eguerdia bitartean. Bazkari pasa-
da Matikun egin, eta bazkalostean saio lasaia goa egiteko tartea har-
tuko dute Urko Egaña irakaslea gai-jartzaile dela.

Herrira elkartearen denda dago gaur arte Pagaldaixenean

Herrira elkarteak atera duen materiala saltzeko denda jarri dute Pagaldai taberna izan-
dako lekuan, Durana kalean. Aste guztian egon da zabalik arratsaldetan (17:00-20:00), eta gaur, egubakoitza, itxiko ditu ateak.

Helduendako eta umeen-
dako arropak dituzte, batez ere kamisetak eta sudaderak, baita osagarriak ere. Oraindik urreratu ez direnek gaur dute azken eguna.

Auzo-konposta bultzatuko du Udaleko Ingurumen Sailak

Txarapea ibilbideko, Iturrizar plazako eta Lausittako bizilagunek interesa agertu dute

M.A. | ARETXABALETA

Auzo-konposta egiteko interesa agertu dute hainbat herritarrek, eta proposamena egin diote Uda-
lari azken asteotan. Txarapea ibilbideko, Iturrizar plazako eta Lausittako bizilagunak direla jakinarazi dute Ingurumen Sai-
lekoek.

Konpost komunitarioa da auzo-konposta, herritarren artean lur publikoan egiten dena, eta, horretarako interesa dagoela jakinik, inguru horretan bizi diren beste herritar batzuei zabaldu gura die proposamena Udalak: "Auzo-konposta egiteko konpromisoa duten beste bizi-
lagunei ere zabaldu gura diegu

proiektu pilotu horretan parte hartzeko gonbita", jakinarazi du Lore Martinez Axpek, Ingu-
rumen zinegotziak. Horren berri emateko eskutitzak bidaliko dizkiete bizilagunei.

Izen-ematea zabalik

Auzo-konposta egiteko proiektu horretan parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute aurretik. Hiru bide daude horretarako: *ingurumena@aretxabaleta.net* helbidera idatzita; 943 08 10 01 telefono zenbakira dei-
tuta; edo Arkupe kultura etxe-
ko bigarren solairuko bulegotik pasatuta (Anabel); azken eguna: urtarrilaren 25a.



M.A.

Musikarekin Gabonei harrera

Leizarra musika eskolako kideek Gabonei ongietorria egin zieten martitzenean, musika emanaldia eskainita. Dantzariak, trikitilariak, akordeoilariak, gitarra-jotzaileak, txistulariak, banda eta beste hainbat instrumentutako ikasleek taldeak elkartu ziren parrokian, eta senideei eta lagunei kontzertu dotorea eskaini zieten, orain arte ikasitako guztiaren berri emanda.

'Jatorrizko herriak' bideoklipa egin dute Basabeazpikoek

A.T/M.A | ARETXABALETA

Arizmendi ikastolako Basabeazpiko neska-mutikoen munduko herriak eta jatorrizko hizkuntzak sustatzeko asmoz, *Jatorrizko herriak eta munduko loreak* izeneko bideoklipa grabatu eta martitzenean aurkeztu zuten.

Ikasleak, gurasoak eta senideak elkartu ziren guneko jolas-tokian, eta hunkituta ikusi zuten ikus-entzunezkoa. Gainera, gonbidatu bereziak izan zituzten aurkezpenean: Porrotx eta Porrotxin pailazoak. Umeek ezusteko ikaragarria hartu zuten pailazook ikustean, eta harrera ezin hobia egin zieten.

Jatorrizko herriak proiektuan 2 eta 6 urte bitarteko nes-

ka-mutikoen hartu dute parte. Proiektuak, gainera, izaera unibertsala du; izan ere, Mexikoko, Guatemalako, Kataluniako eta Galiziako haurrek ere parte hartu dute. Guztira, 126 neska-mutikok jardun dute lanean, Garabide elkartearen laguntzarekin. Ikus-entzunezkoaren grabazioa gurasoek egin dute eta abestia Arrasateko Shot! estudioan grabatu.

Irakasleak pozik ziren proiektu berezi honetan egingako lanarekin. Adin desberdinetako umeek egingako bideoklipa nola egin zen ere ikusi ahal izan zuten bertaratutakoek, eta hango eta hemengo aurpegi-tan irribarre goxoak agertu ziren orduan.



Porrotx eta Porrotxin pailazoak Basabeazpiko ume artean. | XABI URTZELAI

Basotxo erretiratuen elkarteak 47 bazkide egin dira aurten

Gaur Santo Tomas eguna ospatuko dute eta 40 otarre zozketatuko dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aurtengo irailean 30 urte bete ditu Basotxo erretiratuen elkarteak, eta sekula baino osasuntsuago dagoela jakinarazi dute bertako kideek. Herriko erretiratu eta pentsiodunak elkartu, horien arazo eta kezkei irtenbidea eman eta kultur arloko ekintzak antolatzeko asmoarekin sortutako elkarteak dagoeneko 960 bazkide ditu, 546 emakumezko eta 414 gizonezko, eta horietatik 47 aurten sartu dira.

Agustin Aginagalde izendatu zuten martxoan presidente bi urterako, eta gogotsu dabil lanean: "Kontuak garbi izateko irabazi asmorik gabeko elkarte moduan erregistratu dugu Ogasunean eta kontu guztiak legeztatu ditugu".

Egindako jarduerak

Aginagalderean esanetan azken 20 urteotan herrian erretiratutakoen %20k ere ez du eman izena Basotxon: "Horren arrazoia jakin ez; lehen zaharren egoitza bertan egotea...". Hala ere, pozik dago 47 berri egin direlako.

Ekintza mordoa antolatzen dituzte, eta parte hartzeak gora egin duela dio. Aurtengoan artean



Santa Luzia egunean omendutako 90 urteko bazkideak. | M.A.

daude: bidaiak Mediterraneora, Erromara...; eguneko irteerak: Gaztelugatxera, Deguriara... Eta hitzaldiak eta hausnarketak: etorkinen bizipenak; hondakinen kudeaketa; adinekoendako laguntzak... Gainera, *Adinekoen lagun diren hiriak* egitasmo barruan Aretxabaleta aztertzen dabilta 18 bat lagun, eta hilabeteen batzar pare bat egiten dituzte.

Abestaldea ere osatu zuten orain urte batzuk, eta hara eta hona dabilta kantuan: Gernika, Otxandio, Eibar...

Santa Luzia eta Santo Tomas

Egunotan ere hainbat ekintza dituzte; joan den astean, 90 urteko bazkideak omendu zituzten, 11 guztira, eta horietatik sei elkartu ziren: Sinesio Diez, Alberto Martin, Dionisio Abasolo, Cecilia Arenaza, Paula Iregi eta Concepcion Berasaluze. Ez ziren egon: Elia Justel, Asun Gastañaga, Manuela Goñi, Isabel Garcia eta Nicolas San Miguel.

Gaur Santo Tomas eguna ospatuko dute (17:00), eta 40 otarre zozketatu bazkideen artean.

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Gurea
TABERNA
Lotoak eta
kinielak

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



Akaitegi
EXPRES
santakurtz 16, aretxabaleta

Gosariak

Astelehenetik ostiralera (09:00-00:00)

Larunbat eta Igandeetan (12:00etatik zabalik)

Pintxoak

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



Etan eta dastatu gure pintxo goxo-goxuak astelehenetik

URBALTZ
taberna

Mitarte 19 - 20550
ARETXABALETA



Olentzero, Silbestradie eta parkea, betiko izarrak

Askotariko ekintzak antolatu dituzte egun hauetarako ume eta helduendako

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Ekimenez josita datoz Gabonak. Musika Eskolakoek etzi kiroldegian eskainiko duten kontzertuarekin hasiko dira. Gabon egunean, haurrak plazan elkartuko dira kantatzeko, 12:30ean; Olentzeroren laguntzaileak, bitartean, eskutitzak jasoko dituzte. 13:00etan, ostera, Trikitixa Eskolakoak kalejiran irtengo dira. Arratsaldean, 18:00etan, Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira Apotzagatik, eta, txistulari eta trikitilariekin batera, kalez kale ibiliko dira Intxaurtxueta, Gaztañadui, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Arana eta plazatik. Gabon egunean euskal jantziak janzteko dei egin dute.

Lau eguneko txartela, 12 euro

Bestalde, hilaren 26an eta 29an, Gabonetako parkearen bueltan, puzgarriak jarriko dituzte igerilekuan. 11 eta 13 urte bitartekoak 11:00etatik 13:00etara ibiliko dira; 17:00etatik 18:30era, 0 eta 6 urte artekoak, heldu batekin lagunduta; eta 18:30etik 20:00era, 7 eta 10 urteko neska-mutikoak. Hilaren 27an eta 28an, kiroldegiko kantxan



Aurten ere ur jolasak daude. | GOIENA

jarriko dute parkea, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Prezioari dagokionez, lau egunerako txartelak 12 euro balio du; igerilekurako sarrerak, egun batekoa, 3 euro; eta kantxa-koak, 5 euro.

Abenduaren 28an, gainera, musikazaleek hitzordua dute Inker-nun: Hesian taldeak kontzertu akustikoa eskainiko du, 23:00etan. Bestalde, hurrengo egunean, 1/18 Rally Game iraupen lasterketa egingo dute pilotalekuan. 16:00etan

hasi eta gauerdia arte ibiliko dira auto artean. Gabon zahar egunean V. Silbestradie izango da. Goizean, haurrena egingo dute; 11:00etan, izen-ematea zabaldu eta dortsalak margotuko dituzte. Ordubete geroago hasiko da lasterketa. Arratsaldean, 17:00etatik aurrera eman ahal izango da helduendako lasterketarako izena; ordu erdi geroago abiatuko da, plazatik. Aurten ere Manuel Muñoz milia egingo dute. Horrez gainera, iazko lasterketan ateratako argazkiekin erakusketa ere bisitatu ahal izango da egunotan.

Urte hasierarekin batera, plazan elkartuko dira, 01:00etan, presoan aldeko brindisa egiteko. Urtarrilaren 3an, Bilboko PINera joango dira umeak. Gaur arte eman daiteke izena ludotekan edo Gazteria Zerbitzuan. Eta urtarri-laren 5ean, Erregeen Kabalgata egingo dute. Pilotalekutik irtengo da, 18:30ean.

'Gaba Elegantia'

Gaztelekuan ere askotariko ekintzak dituzte. Bihar, mahai jolas maratokia egingo dute; etzi, zinema;

GABONAK, EGUNEZ EGUN

ABENDUAK 23

18:00 Musika Eskolako kontzertua.

ABENDUAK 24

12:30 Olentzeroren laguntzaileak izango dira eskutitzak jasotzen.

18:00 Olentzerori ongi etorria.

ABENDUAK 28

23:00 Hesian-en kontzertua.

ABENDUAK 29

16:00 1/18 Rally Game.

ABENDUAK 31

12:00 Haurren V. Silbestradie.

17:30 Helduen V. Silbestradie.

URTARRILAK 1

01:00 Presoen aldeko brindisa.

URTARRILAK 3

10:00 Bilboko PINera irteera.

URTARRILAK 5

18:30 Erregeen Kabalgata.

Gabonetako jolas parkea, hilaren 26tik 29ra bitartean.

eta hilaren 26an, joko zaharren maratokia, 17:00etan. Hilaren 27an eta 28an, egun osoko irteerak daude: lehenengoan izotz pistara, eta bigarrenetan, Bilboko PINera. Hilaren 29an, Euskal Selektzioaren jaia egingo dute, 19:00etan, gaztelekuan; eta 29an, *Gaba elegantia*, ordu eta toki berean. *Photocall*-etik pasa ostean, afaria eta dantzaldia izango dute. Dotore jantzita joateko dei egin dute.

NIRE USTEZ

NESTOR ARANA



Demokrazia parte-hartzailea

Abenduan gaudenez, urteko balantzea egiteko momentua ona izan daitekeela iruditatu zait.

Udaberrian zabor kontuak genituen hizpide. Gai benetan konplexua; dena den, berandu baino lehen zerbaitekin beharra dugu. Gaur egun bizi dugun finantza krisiaren ondorioak, ingurugiroaren krisiak ekar dakigukeenaren adibide on bat izan daiteke.

San Pedrotan, herriaren taupadak entzun genituen. Ikuskizun paregabea eta mezu ederra igorri zigutela deritzot. Ea orain herri taupadak esparru ezberdinetan entzuten ditugun. Herri taupadaren adibide EskoHitza ekimena dela deritzot.

Aurten ere, ekimen hori martxan jarri da. Joan den urtean baino parte hartzaileagoa dela deritzot. Aurtengoan, hurrengo urteko kudeaketa plana egiteko herriaren hitza jasotzen ari dira-eta. Benetako demokrazia parte hartzailearen oinarriak jartzen ari garela esango nuke.

Demokrazia parte-hartzaileak garatzeko, aldiz, hezkuntza funtsezkoa da. Behar ditugun herritarrek jantziak, parte-hartzaileak, kritikoak eta irudimen handikoak izan behar dute. Arestian aipaturiko erronka (finantza, ingurugiro, energia) handi horiei eta etorriko direnei aurre egiteko gai izango diren herritarrak behar ditugu.

Urte amaiera on eta hasiera hobea opa dizuet, guztioi.

"Herri taupadaren adibide EskoHitza ekimena dela deritzot"



MIRIAN BITERI

EskoHitzaren erakusketa gaur arte

Harrera ona ari da izaten EskoHitza 2013 prozesuaren harira Hirigintzan Udalak aurreikusita dituen 15 proiektuen gaineko erakusketa. Besteak beste, antzokiari, erdialdeko peatonalizazioari eta gimnasioaren handitzeari buruzko azalpenak ezagutzeaz gain, lehentasunak zehazteko aukera ere badute eskoriatzarrek. Gaur arte bisita daiteke erakusketa.



MIRIAN BITERI

Atxorrotzeko zati bat, museoan

Gaur, 18:00etan, bisita gidatua izango da Ibarraundin. Lehenik, orain arte egindako indusketetan topatutako materiala ezagutaraziko da proiektio txiki baten bidez; eta jarraian, egunotan museoan bigarren solairuan jarrita dagoen erakusketan dauden elementuak azalduko ditu lan horietan dabilen Iñaki Sagredo historialariak.

LENIZ
ESKORIATZA



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Udal gimnasioak eskaintza berriak ditu Gabonetarako

M.A. | ANTZUOLA

Eguzki auzoko udal gimnasioak Gabonetarako eta urte berri-rako eskaintza berriak pres-tatu ditu. Nabarmendu dute urte hasieran prezioak berd-in mantenduko dituztela, igoe-rarik gabe.

Doan probatu ikastaroak

Gabonetan, gainera, hastapen ikastaro ezberdinak doan pro-batzeko aukera dago: pilates, gimnasia hipopresibo eta spin-ning ikastaroak.

Oparia egiteko aukera

Zazpi hilabeteko abonatu txar-tela %15eko deskontuarekin eskuratzeko edo oparitzeko auke-

ra dago. Urtarriletik uztaile-ra fitness gela erabiltzeko aukera dago: ordutegi malguarekin eta irakasle aditu baten laguntza-rekin. Taldeko ekintzetan –spin-ninga, pilatesa, sasoian egoteko gimnasia, gimnasia abdominal hipopresiboa, erretiratuendako gimnasia, karatea...– prezio bereziak egingo dira, eta ordain-tzeko erraztasunak jarri.

Eskaintza zabala zerbitzue-tan: hilabeteko, hiru hilabeteko edo zazpi hilabeteko tarifak egin daitezke; baita familientzako tarifak ere. Harremanetarako, 943 76 66 61 telefono zenbakira deitu edo idatzi e-posta antzualakogimnasioa@gmail.com hel-bidera mezua.



Azaroan herritarrek abiatu zituzten batzar irekiak Olanan. | PARTE-HARTZE PROZESUA

60 herritarrek hartu dute parte batzordeen bilera irekietan

Ondorioak interesgarriak eta aberasgarriak direla azaldu dute parte-hartze prozesuko kideek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Urritik hona martxan dagoen parte-hartze prozesuaren azken pausoa eman dute antzualarrek egindako batzar irekietan.

"Herritarrekin arlokako bile-rak burutu genituen, 2013ra begi-rako proiektuak lehenetsita eta prozesuaren zatirik garrantzitsu-na eginda. Bilerak giro alai-ean egin ziren, etorritako herritarren ekarpenak eta iritziak elkar bana-tuta eta iritzi indibidualetatik erabaki kolektiboak osatuta", dio-te prozesuko kideek.

Parte-hartze zabala

Guztira, 60 bat herritarrek parte hartu zuten bilera irekietan; horietako batzuek, gainera, egin-dako hiru bileretan parte hartu dute. Bada, egindako batzarretan kopuru berdintsua mantendu da, bakoitzean 25-30 herritarren pre-sentziarekin.

Ondorio nagusiak

Herritarrek bilerak modu posi-tiboan baloratu dituzte, eta eurentzako lanketa interesgarria eta aberasgarria izan dela azal-

du digute. "Aurrera begira modu honetan jarraitzeko gogoia ere adierazi digute parte-hartzai-leek", gaineratu dute parte-har-tze prozesuko kideek.

Aurrez banatutako galdera sortan, 16 urtetik gorako 147 herritarren erantzunak jaso dira. "Zalantza barik, prozesu honetako parte-hartze kopuruak eta bilera hauek prozesu hau aberasten lagundu digute".

"Udaletik modu berean balo-ratzen ditugu, eta, etorkizune-ko erronken bidea markatzen laguntzeaz gain, aurrera begi-ra ere parte-hartzearen beharra azpimarratu nahi dugu; izan-dako emaitzak oso aberasga-rriak izan dira, herritar zein Udaleko ordezkariarentzat".

"Eskerrak eman nahi diz-kiegu prozesu guztian gurekin parte hartu duten herritarrei, eurak izan direlako prozesu honen oinarri eta protagonis-ta nagusiak", azpimarratu gura izan digute prozesuko kideek.



San Josepeko errepidea zirkulazioari eta oinezkoiei zabalik dago. | M.A.

San Josepeko ingurua garbitzeko dei egin du Udalak, biharko

M. A. | ANTZUOLA

Auzolanean San Josepe errepi-dea garbitzeko dei egin die Udalak herritarrei, biharko, 09:00etan, San Josepen. Olen-tzero bertatik igaroko da opariak eta ikatza banatzeko; bada, bidea txukuntzea da asmoa.

Errepidea zabalik dago

Txosten geologikoa egin dute; baita aurrekontua ere. Lehen faseko lana urgentziazko egon-kortzea egitea izan da, errepidea zabaltzeko. "Sasiak kendu dira, eta hormigoia –gunitatua–proiektatu", azaldu digu Valen Monuxek, Hirigintza teknika-

riak. "Errepidea zabalik dago eta hilabete batzuetarako segur-tasuna bermatuta dago".

Orain, bigarren faseko behin betiko lana zein izango den erabakitzen dihardu Udalak. "Hiru aukera ditugu irtenbide gisa, baina ondo aztertu behar ditugu. Ondo baloratu behar da soluzioa, obra handia da, eta, gainera, prezio ona lortu nahi dugu". Aukeren artean hauek daude: lehena, harri ton-torak kentzea edo botaraztea; bigarrena, harri horiek sare batzuen bidez eustea; hiruga-rrena, hormigoi gunitatu kapa handiagoa botatzea.

Gabonetako zabor bilketan kontuan hartzeko aldaketak

Hilaren 24an eta 31n, gauean, ez da ontzirik atera behar, ez da zer-bitzurik emango. Horren ordez, San Josepeko aportazio-guneko kanpoaldean ontziak botatzeko edukiontzia jarriko dira. 2013ko urtarrilaren 5ean, gauean, ez da errefusik atera behar; hilaren 6an, gauean, errefusa eta organikoa, biak batera atera behar dira.

OHARRAK

LAN ESKAINTZA

Bi peoi kontratatze deialdia zabalik, hilaren 31ra arte.

FUTBOLA

Antzuolak Zestoa hartuko du Eztalan, zapatuan, 15:45ean.

BERTSO MUSIKATUAK

Domekan, 21:30ean, gaztetxean: Lazkao Txikiren, Xalbadarren, Egañaren... bertsoak.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Ile apaindegia

Edertze aretoa

Germaine de Capuccini produktuak

Laser bidezko depilazioa
Informa zaitez!

Zorionak
eta Urte berri on!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA



2013ko aurrekontuetarako herritarrei iritzia eskatzen

J.B. | ARAMAIO

Udalak herritarrekin batera onartu gura ditu 2013ko aurrekontuak. Parte hartze prozesua asteen hasi dute, martitzenean auzo alkateekin eta herriko eragileekin egindako aurkezpenarekin. Ramon Ajuria alkateak adierazi du Udalaren asmoa dela herritarrek diru-kontuen gaineko "informazio zehatza" izatea: "Aramaioarren iritzia gura dugu aurrekontuak onartzeko eta horretarako informazioa ezinbestekoa da". Zirriborrea prestatu dute eta hor jasotzen dira, besteak beste, Udalak 2013ra begira aurreikusten dituen proiektuak: Muruko saneamendu obrak, Ibarra auzoko argite-

ria publikoa berritzea, Berdintasuna Plana, ABB fundazioa bultzatzea, webgune berria abiaraztea, eskolako baranda berritzea, artxibo berria martxan jartzea eta Uema Eguna Aramaion antolatzea, besteak beste.

Osokora, urtarrilaren 30ean

Abenduaren 31ra arte auzo bilerak egingo dituzte; hilaren 31a izango da herritarrek proposamenak egiteko azken eguna. Urtarrilaren 5ean lehen zirriborrea aurkeztuko da eta astebete beranduago ideia eta konponbideak emango dituzte. Azkenik, urtarrilaren 30ean egingo dute aurrekontua onartzeko ohiko osoko bilkura.



Martitzenean egin zuten aurkezpena auzo alkateekin eta eragileekin. | UDALA

Aitziber Zumalde | Aramaioko aguazila

"Denetarik egin beharko dut, eta, beraz, asko dago ikasteko"

- Astelehenean hasi zen lanean; ordutegia beharren arabera izango da
- Arrasateko lan-poltsatik dator, hautagaiek ez zutelako oposizioa gainditu

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Astelehena ezker Aramaioko aguazila da Aitziber Zumalde (Arrasate, 1978). Arrasaten lau urtez aritu da udaltzain eta erronka berri honen aurrean "oso gogotsu" dagoela dio. 09:00etatik 17:30era egingo du lan, baina beharren arabera egokitu behar du ordutegia.

Hasteko, nola joan dira lehen egunak Aramaioko aguazil moduan?

Egun arraroak izan dira; dena berria delako, batez ere. Arrasaten izandako lanarekin ez du zerikusirik. Han udaltzaina nintzen eta hemen aguazila naiz. Hemen ere herriari laguntzeko egongo naiz, baina lanak oso ezberdinak dira. Herriaren mantenu lanak dira gehiago. Gainera, lehen egun hauetan ikusi dudanez, ardurak ez daude horren banatuta; nolabait esateko, eginbeharrak denon artean egiten dira.

Izango dira, baina, zuretzako propio diren betebeharrak, ezta?

Noski. Oraindik erabat zehaztu barik badaude ere, adibidez, apartatzeko ohiturak aldatu nahi dira.



Aitziber Zumalde, aurrerantzean erabiliko duen ibilgailuarekin. | JOKIN BEREZIARTUA

Baina ez gara egun batetik bestera isunak jartzen hasiko. Gaizki aparkatutako autoengatik arazoak izaten diren guneeetan abisuak emango dira. Bestalde, mezulari lanak ere egingo ditut; Udalaren jakinarazpenak auzoetara zabaldu, esaterako. Baina baita osoko bilkurak direnean abisua eman, obretako tasak kobratzen lagundu, ur kontagailuaren kontrola eraman... Eta gero, noski, uneen bertan suertatzen diren larrialdiei irtenbidea ematen saiatu. Denetarik egin beharko dut eta beraz, asko dago ikasteko.

"Ez gara egun batetik bestera isunak jartzen hasiko"

Nola heldu zara aguazil izatera?

Oposizioa ez zuen inork gainditu, baina Udalak norbait behar zuen. Hala, Udalak Arrasateko lan-poltsako zerrenda eskatu zuen eta ni nengoen lehen postuan. Deitu egin ninduten, eta, ideia gustatu zitzaidanez, hemen nago.

Gabonak ekintzez lepo, haurrei begira batez ere

Olentzero 18:00etan heldu eta kalejiran jaitsiko da Sastiñara haurren eskutitzak jasotzeko

J.B. | ARAMAIO

Gabonetarako egitarau oparoa antolatu du Udalak herriko eragile ezberdinekin elkarlanean. Haurrak izango dira protagonista nagusi, baina gazte zein helduek izango dute zertaz gozatu. Euskal Herriko ikazkin maitatuena hilaren 24an 18:00ak aldera helduko da Ibarrara eta kalejiran jaitsiko da Sastiñara. Han jasoko ditu haurren eskaerak, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzek kantuan egiten duten bitartean. Hurrengo egunetan umeek hainbat tailer, ikuskizun eta emanaldi izango dituzte. Tailerrak ludotekan egingo dira; eta ordu horietan bakarrik egongo da zabalik. Udal liburutegiak, berriz, ohiko ordutegian egingo du lan; hau da, 17:00etatik 20:00etara.

Urteko azken egunean haurrek Bilboko PIN Gabonetako haur parkera joateko aukera izango dute. Udaletxean eman behar da izena, abenduaren 26a baino lehen, zortzi euro ordainduta. 10 urte-tik beherakoak heldu batekin joan beharko dira; 18:00ak aldera bueltatuko dira.

Debarroako finalak Aramaion

Kirol hitzorduek ere ez dute hutsik egingo. Izan ere, abenduaren 26tik 31ra Gabonetako Debarroako Pilota Txapelketa jokatu da. Kanporaketak Aramaion, Arrasaten eta Oñatin jokatu dira, benjamin, alebin eta infantil mailan.

Aurtengo txapelketa Aramaioko taldeak antolatu duenez, finalak bertan jokatu dira.

Kantaldiak Gabonak hasteko

Gabonak gustuko dituenarendako Gabon kantak ezinbesteko osagai dira eta Aramaion abesteko ohitura oso hedatua dagoenez, kantaldiak ez dira faltako.

Domekan, esaterako, bi saio izango dira. Goizean, Bizente Goikoetxea abesbatzak egingo du kantuan San Martin elizan, meza-oren ostean -hilaren 29an Arrasateko San Andres auzoan ere abestuko dutela iragarri dute-. 19:00ak aldera, berriz, urteroko Gabon kantaldia egingo dute Arrasateko, Otxandioko eta Legutioko lagunekin batera. Aurten Aramaion egitea tokatzen da.

GABONETAN ZER?

Abenduak 21: Euskarazetamol antzezlanak Kultur etxean (22:30).

Abenduak 23: Bizente Goikoetxea abesbatzaren kontzertua San Martin elizan (12:30).

Abenduak 23: Gabon kantaldia San Martin elizan (19:00). Legutioko, Otxandioko, Arrasateko eta Aramaioko herritarren parte hartzearekin.

Abenduak 24: Olentzero (18:00).

Abenduak 26: Umeendako tailerrak ludotekan: *Batidu dibertigarriak* egiten (12:00).

Abenduak 26: Txotxongilo emanaldia Kultur etxean: *Antzokiko istorioak* (17:00).

Abenduak 27: Umeendako tailerrak ludotekan: *Cupcakes* (12:00).

Abenduak 27: Magia ikuskizuna Kultur etxean: *Magiaderiak* (17:00).

Abenduak 28: Umeendako tailerrak ludotekan: *Eskulanak txokolatearekin* (12:00).

Abenduak 30: Baztan pelikularene emanaldia Kultur etxean (19:00).

Abenduak 31: Bilboko PIN Gabonetako haur parkera irteera (09:15).

Abenduak 31: Gabonetako pilota kopako finalak kiroldegian (goizean).

Urtarrilak 1: Orixolera mendi martxa (goizean zehar).

Urtarrilak 2: Ipuin kontalari saioa Patata Tropikala taldearen eskutik (17:00 eta 18:00).

Urtarrilak 3: Bertso saioa Kultura etxean: Xabi Igoa, Aitor Sarriegi, Maialen Lujanbio eta Miren Amuriza. Sarrera: 3 euro.

Urtarrilak 4: Haurrendako jolas parkera kiroldegian (12:00-14:00 eta 16:00-19:00).

NIRE USTEZ

ANDER ELORTONDO

Arma eskuragarri?

Erriberri gure erregeek gaztelu ederra egin zuten nafar herria da. Aldrebesak dira ingelesak eta Newtown deritzote euren Erriberri; gainera, agerikoa da Nafarroa ez dela Connecticut.

Bertan gazte batek etxeko arma hartu eta sarraski itzela egin zuen aurrekoan herriko eskolan. Urruti ikusten dugu Newtown eta zorionez, ez dugu inguruan halakorik izan. Askok uste dutenaren kontra, ez da armarik ez dagoelako herriko etxeetan. Espainiako etxeetan 12 biztanleko arma bat dago eta

Aramaioko askoz gehiago direla esatera ausartzen naiz. Bai noski, alde handia dago gazte hark erabilitako asaltoko fusil automatikoaren eta baserririk baserri dauden ehiza eskopeten artean. Edonola ere, nire uste apalean, gertatutakoaren ardatza ez dago tresnan, esku artean hartutakoan, mutiko hark buruan zeukanean (edo ez zeukanean) baizik. Aldea kultura da, armekiko harremana.

Armekiko harreman hori ikusteko, zein arma eta zertarako erosten diren begiratzea besterik ez dago. Ez dadila inor erratu, ez nabil arma defen-datzen, garrantzia non dagoen finkatu nahian baizik. Tresnak ez dira muina, horien erabilera baizik.

Erabilera zuzenak egon daitezen jar ditzagun indarrak, heziketa, kultura, elkartasuna, auzokidetza, elkarbizitza, herri-gintza...

Hiltegi zaharrean ekonomatoa osatzeko aurkezpen bilera egingo du Aramailur taldeak hilaren 27an

Kontsumo taldea ahalik eta babes gehien gura du: "Lehen urratsak ematen hasi garen honetan, ahalik eta herritar gehienei zabaldu nahi diegu egitasmoa, parte hartzea bultzatu eta proiektu honetan interesa dugun guztion artean aurrera begirakoak erabakitzeke". Aurkezpena hilaren 27an izango da, hiltegi zaharrean (18:30).

ELGETA

Olentzerok zabalduko ditu Gabonetako oporrak

Tailerrak, biodantza, tai txi txuan eta haur parkea ere izango dira oporretan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Iritsi dira Gabonetako oporrak etxeko txikienendako, eta hurrengo egunak oso bereziak izango dira. Aste bukaerako agenda beteta dator, eta Olentzero izango da protagonista nagusia. Baina Gabonetako oporrak ez dira horretan geldituko.

Itxura ona du domekan eta berrikuntza moduan, 11:30ean, egingo den jostailu truke azokak. Dagoeneko jaso dituzte zenbait jostailu ludotekan zein liburutegian. Gogoratu behar da gaur —barikua— dela jostailuak entregatzeko azken eguna. Gazteek, berri, azoka antolatuta dute gaztelekuan egindako eskulanekin, 17:30erako. Olentzero etorri aurretik, beraz, egongo da mugimendua herriko plazan.

Tailerrak eta haur parkea
Oporretan, berri, ia egunero egongo da ekintzaren bat umeendako. Hilaren 26an eta 27an tailerrak egongo dira ludotekan, 17:00etatik 19:00etara. Doan izango dira. Abenduaren 28an Ana Mari Sousak eta Mentxu Arjoni-

DATOZEN EGUNETAKO EGITARAUA

ABENDUAK 21

15:00 Bisita Bergarako Mizpirualde egoitzara.

17:30 Umeen Gabonetako pilota txapelketa.

19:00 Beteranoen pilota txapelketako finalaurrekoak.

ABENDUAK 23

11:30 Jostailu truke azoka, herriko plazan.

13:00 *Elgeta kantuan*, tabernaz taberna.

17:00 Txokolate-jana.

17:30 Eskulan azoka gaztelekuko eskutik.

18:00 Olentzeroren etorrera.

ABENDUAK 24

10:00 Gabon kantuak eskolatik abiatuta.

12:00 Salda eta txorizoa, herriko plazan.



Truke azokarako jostailuak. | L.Z.

Ilak haur eta gurasoendako biodantza saio irekia egingo dute eskolako ganbaran, eta Lorea Larrañaren ikasleek urte amaierako emanaldia egingo dute, 19:00etan, kafe antzokian.

Abenduaren 29an, adin guztiendako tai txi txuan saioa egingo dute 10:30ean gimnasioan, eta 18:00etan ipuin kontalari saioa egongo da gaztelekuan.

Gabonetako haur parkea urtarri-laren 3an eta 4an izango da aurten, 17:00etatik 20:00etara. Eguneko sarrera hiru euro da.

OHARRAK

PINTURA ERAKUSKETA

Kontxi Idigoras margolari elgetarrak pintura erakusketari ipini du Espaloia kafe antzokian. Urtarril amaiera arte egongo da zabalik.

BISITA LUBAKIETARA

Hilaren 23an egingo dute Intxortako Ibilbide Tematikoa-koen urteko azken bisita gidatua. Taldea 10:00etan abiatuko da Espaloia kafe antzokitik, eta hiru orduko txangoa izango da. Prezioa da 6-16 urte artekoendako bi euro, eta 16 urtetik gorakoendako bost euro. Parte hartzeko erreserba egin behar da. Gaur, barikua, da azken eguna: 943 71 89 11 edo 943 79 64 63.

Prezio sozial batean herri osoari Internet konexioa emateko aukera

L.Z. | ELGETA

Hiru ordu luzatu zen eguaztenean GipuzkoaShare elkarteko Asier eta Iker Garaialdek Guifi.net proiektua aurkezteko egindako batzarra. Esan zuten irabazi asmorik gabeko elkarte dela GipuzkoaShare, eta defendatu zuten posiblea dela prezio sozial batean herri osoari Internet zerbitzua ematea. "Telekomunikazio sareak operadore handien esku daude. Ezin ditugu gure telekomunikazioak enpresa pribatuen esku utzi".

Idea da, finean, Internet konexioa bakarrik kontratatzea, eta herriar guztiekin partekatzea.

Eman beharreko pausoak dira: seinalea Elgetara ekarri, bizpahiru nodo edo errepikatzaileren bitartez seinalea herrian zabaltu, eta jarraian interesa duten erakinetan sartu. Kataluniako Gurb herrian duela zortzi urte abiarazitako ekimenak izandako hedapena ipini zuten adibide gisa.

Herri mailako sarea

Herriarrendako Internet konexio merkea lortzeaz gain, proiektuak herri mailan doako telekomunikazio sarea sortzeko aukera ere emango luke. Atzoko osoko bilkuran izan zuten erabakia mahai gainean.

LEINTZ GATZAGA

Korrika pintxo-poteoa egingo dute gaur, eta apustua ere egongo da

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagan ere osatu da Korrika batzordea, martxoaren 14an Andoainen hasi eta 24an Baionan bukatuko den 18. Korrikaren inguruko ekitaldiak antolatzeko. Joan den egubakoitzean osatu zuten taldea; osatu bakarrik ez, lanean ere hasi da batzorde hori, eta, herria girotze aldera, Korri-

ka pintxo-poteoa egingo dute gaur, egubakoitza (19:00-21:00). Opor bezpera izanda eta Korrika aitzakia hartuta, herrian giro bikaina sortzea gura dute batzordeko kideek.

Angulen pisua

Korrikari laguntzeko helburuarekin, gainera, apustu edo porra

berezia antolatu dute: angula-porra. Debarrenatik ekarritako angula biziak izango dituzte eta bi euroren truke zein pisu duten bota beharko dute herriarrek. Asmatzen duenak afari ederra egiteko aukera izango du angula horiekin.

Korrikaren inguruko ekitaldiok, baina, hasi besterik ez dute egingo gaur, eta urtarrilean kantu-afaria egingo dute; hilaren 18an, hain zuzen ere. Gaur hasiko dira jasotzen izenak afari horretarako.

IX. PILOTA TXAPELKETA

Txapelketako finalerdiak gaur

Interesgarria izan da helduen pilota txapelketako ligaxka azken unera arte. Partidu guztiak jokatu behar izan dira finalerdietarako sailkatuak zeintzuk diren jakiteko. Gaur jokatuko dira finalerdiak, 19:00etan hasita. Gogoratu behar da 17:30ean umeen partidua ere egongo direla.

SAILKAPENA (40 URTETIK GORAKOAK)	J	I	G
1. Angel Ibarluzea - Alberto Telleria	7	6	1
2. Jose Mari Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu	7	6	1
3. Igor Irazabal-Enrike Elkorro	7	5	2
4. Asier Morales - Fernando Zenitagoia	7	4	3
5. Pello Larrea-Mikel Elkorro	7	4	3
6. Luis Antonio Alkorta-Gorka Bolinaga	7	2	5
7. Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre	7	1	6
8. Iker Irazabal-Jabier Larrañaga	7	0	7

SAILKAPENA (40 URTETIK BEHERAKOAK)	J	I	G
1. Odei Zenitagoia - Andoni Elortza	8	8	0
2. Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga	8	5	3
3. Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi	8	5	3
4. Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua	8	4	4
5. Sergio Bouzas - Jon Irazabal	8	4	4
6. Iban Retolaza-Diego Cantabrana	8	4	4
7. Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe	8	3	5
8. Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta	8	2	6
9. Haritz Makarro-Mikel Ormaetxea	8	1	7

FINALERDIAK. BARIKUAN 19:00ETAN

Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Asier Morales-Fernando Zenitagoia

Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua

Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Igor Irazabal-Enrike Elkorro

Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi

Txabola-jabeek hilaren 31ra arteko epea dute euren txabolen gaineko txostena udaletxean aurkezteko

Udalak herrian dauden txabolen ezaugarriak ezagutu gura ditu. Honela dio alkatearen bandoak: "Baimena eskatuta eta baimenik barik eraikitako txabolen inguruko errolda osatu du Udalak. Ikusita errolda horretan dauden txabola gehienen ezaugarriak ez datozela bat bere egunean eskatutako baimenekin txabolen jabeek abenduaren 31ra arteko epea dute euren txabolen ezaugarriak jasotzen duen txostena udaletxera ekartzeko".

Beak Gabon zoriontsuak opa dizkizue!

Andra Mari 2 ELGETA Tel.:943 76 80 98

ERDIko DENDA
Janari denda - Ogia - Kafea

Gabon zoriontsuak
elgetar guztioi!

Gudarien bidea 6 ■ 943 76 81 07 ■ Elgeta



Malen Ruiz de Azua, egunean, Mojategin egindako lan-saioko atseden une batean. Ateri zegoenez, Arrasateko pertigistak ondo entrenatu ahal izan ziren. | XABIER URTZELAI

ATLETISMOA

Malen Ruiz de Azua | Atleta

"Polita da errekorrak gainditzea; ondorengoek onduko dituzte gureak"

Malen Ruiz de Azuak pertikako gazte mailako Espainiako errekor berria ezarri berri du

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Arrasatear gehienok gertu ditugu Santamasetarako baserritar jantziak. Baina Jonathan Perezen aginduetara lanean dabiltzan Arrasateko jauzilariek Anoetan igaroko dute jai-eguna, entrenatzen [Neguan zailtasunak izaten dituzte Mojategin, pista bustita egoten delako]. Hala, Anoetan izango da joan den astean pertika saltoan gazte mailako Espainiako errekorra ondu zuen (3.86 metro) Malen Ruiz de Azua (Arrasate, 1995). Atletismoko harribitxi, entrenatzaileak sarri azpimarratu du 17 urteko neska honek dituen dohain fisikoak: "Baina pertikan burua oso garrantzitsua da, salto egiteko beldurra gainditzea ezinbestekoa delako, eta Malenek ez du beldurrik", diosku entrenatzaileak.

Zer esan nahi du Espainiako errekor bat gainditzeak?

Erakusten du poliki-poliki bagoa zela aurrera, eta egiten dugun lanak bere emaitzak ematen dituela. Gauza polita da, horrek esan nahi duelako atzetik beste norbait etorri arte zu izango zarela marka horren jabe. Ea noiz arte irauten duen.

Izan ere, markak behin eta berriro gainditzen dituzue kirolariok.

Bai, eta pertika saltoan batez ere. Azken batean kirol modalitate nahiko berria da, geroago eta jende gehiago dator atzetik eta hobekuntzak etengabeak dira. Material berria, pertika hobeak, entrenamendu ezberdinak... Orain egiten ditugun errekorrak atzetik datozenek onduko dituzte.

Dena dela, oraindik baduzu gazte mailan ezarri berri duzun marka hori ontzeko beste aukera bat. Ze espero duzu hitzordu horretatik?

Bai, abenduaren 27an beste txapelketa bat dugu, eta ondo legoke marka berri bat ezartzea. Izan ere, gazte mailan egingo dudana azken txapelketa izango da, 2013an

"Pertika saltoa kirol nahiko berria da eta atzetik gazte asko datoz"

"Abenduaren 27ko txapelketan ahaleginduko gara salto ona egiten"

junior mailara pasako naizelako. Orain hasi gara karrera berria hartzen [saltoa egin aurretik korritu behar izaten duten distantzia] eta baliteke horrekin arazoak izatea. Bestalde, Maialenek [Axpe] ekarri berri duen pertika probatuko dugu asteburuan, eta ea zelan moldatzen garen. Baina bai, ederra litzateke marka berria egitea.

Anoetara joango zarete asteburuan; lagunak, berriz, Santamas jaietan murgilduta ibiliko dira...

Bai, gogorra da, azken batean gauza askori esan behar izaten diogulako ezetz, eta sarri geratzen gara penaz. Esaterako, ikaskideak ikasbidaian egon berri dira, baina nik nahiago izan nuen beste atleta askorekin batera Leonen egin genuen kontzentrazioa joan, entrenatzera.

Eta kontzentrazio horrek emaitza onak eman zituen, errekorra etorri zelako ondoren.

Bai, eta oso gustora egon nintzen Leonen, gainera. Oraingoan esfortzuak saria izan du, baina beti ez da hala gertatzen.

Egun seinalatuak datoz, bapo jan eta edatekoak. Etxean menu berezia egingo dizute?

Ez dut uste, baina zaindu egin beharko dut jaten dudana, bai.

Gainera, etxeko guztiak amaren etxean batzen garenean ondo jateko joera izaten dugu [Barre]. Zorionez, baina, ez naiz oso gozo-zalea.

Pista estaliko denboraldia hasi baino ez duzue egin...

Bai, denboraldi hasiera da, baina gazte mailako kategorian egingo ditudan azken egunak dira.

Esan nahi dut, baina, denboraldi hasieran errekorrak hausten ari bazara, uztalean zer egiteko gauza izango zara?

Beno, helburua da 3,95 metroko marka egitea, hori delako uztalean [18tik 21era arte] Italian egingo duten Europako Txapel-

"Gauza asko utzi behar izaten ditugu alde batera, baina merezi du"

"Gure artean dugun giro ona oso lagungarria da, lagun artean gaude"

ketan egoteko behar dudan gutxieneko marka. Hori lehenbailehen lortuz gero gainontzeko txapelketak presio gabe egin ahal izango ditut, gozatuz. Eta lau metroko markatik gertuago egoten banaiz, hobeto.

Lekutan dago uztaila, aire librean ibiliko zarete orduan...

Bai, baina neguan pista estalian egiten ditugun markak baliagarriak izaten dira aire libreko denboraldirako.

Aipatu duzu pertika saltoan jardutearren hainbat gauza baztertu behar izaten dituzula. Eskertzekoa izango da, baina, herrikideekin entrenatu ahal izatea.

Duda barik, laguntasun handia ematen du gure artean dugun giro onak. Gutako norbait burumakur badago besteon artean laguntzen saiatzen gara, eta hori eskertzekoa da. Lehen aipatu dut lagunekin hainbat gauza alde batera utzi behar izaten ditugula, baina entrenatzera gustura etortzen gara, hemen ere lagun artean egoten garelako.

Eta pertika saltoa alde batera utzita, ze zaletasun duzu?

Oso kirolzalea naiz, eta adibidez, eskiatzera joateko amorratzen nago. Baina, ez da posible, min hartzeko arriskua dugelako.

ZIKLO-KROSA

Ziklista onenak batuko ditu domekan Oñatiko lasterketak

Joan den asteburuan Euskal Herriko ziklo-kros egutegian atsedean izan eta gero, ziklistak domekan itzuliko dira lanera, Oñatin, gainera. 10:00etan kadeteek hartuko dute esku, 11:00etan gazteek eta eliteko emakumezkoek; 12:00etan masterrek eta 15:15ean elite eta 23 urtez azpikoek.

ATLETISMOA

San Silbestre proban parte hartzeko deia, Eskoriatzan eta Oñatin

Abenduaren 31n San Silbestre lasterketak egingo dituzte Oñatin eta Eskoriatzan. Oñatin 16:00etan hasiko da gazte-txoena, eta 16:30ean nagusi-ena. Eskoriatzan, berriz, gaztetxo- probak goizean egingo dituzte, eta nagusiek 17:30ean izango dute hitzordua, brindisa egin ostean.

FUTBOLA

Luis Herzogen omenezko futbol txapelketa Bergaran

Txapelketan egongo dira Bergara, Real, Aretxabaleta eta Eibar. Hala, hilaren 29an 16:15ean Bergarak eta Realak jokatu dute Ipintzan. Domekan, berriz, Eibarrek eta Aretxabaletak, 17:00etan. Eta finaleko partidua abenduaren 31n izango da, 16:00etan, Agorrosin.

FUTBOLA

Hirugarren dagoen Aretxabaletak Trintxerpe hartuko du

Asteburuan Ohorezko Erregional mailak ez du atsedeenik hartuko –Mondra atzo iluntzean zen Azpeitian jokatzekoa–. Aretxabaletak Trintxerperen bisita izango du domeka arratsaldean Ibarra zelaian (16:30).



Martitzen eguerdian aurkeztu zuten txapelketa, Arkupen. | XABIER URTZELAI

FUTBOLA

Emakumezkoen Gabonetako torneoak zortzi urte beteko ditu

Abenduaren 29an jokatu dute kategoria txikiek; hilaren 30ean, berriz, Realak eta ibarreko selekzioak

XABIER URTZELAI | ARETXABALETA

Arizmendiko Gabonetako Futbol Txapelketako zortzigarren edizioan ibarreko eta Gipuzkoa osoko 400 emakumezko hartuko dute esku, hainbat kategoriatan banatuta. Eta kontuan hartzeko moduko zenbatekoa da. Txapelketa aurteztu zuten martitzenean Arizmendiko zuzendari Txaro Iraetak, Aretxabaletako alkate Ana Bolinagak, Realeko ordezkari Juanjo Arrietak eta Aitor Mendibilek eta antolatzaile lanean lanean dabilen Gari Ibartzabalek.

Emakumeen kirola sustatzen

Txaro Iraetak txapelketaren helburuak eta emakumezkoen futbolak Arizmendirendako duen garrantziaz jardun zuen, eta alkateak gogorarazi zuen halako ekimenekin lortu dela berak gaztetan izan ez zuena; alegia, egun, emakumezkoek futboleko jokatze baliabideak. Realeko ordezkari Aitor Mendibilek gogorara-

DATUA

400

JOKALARI

Kategoria guztietako neskak batuta, 400 jokalar izango dira txapelketan.

zi zuen talde txuri-urdinarendako zelako garrantzitsua den Gipuzkoan antolatzen diren futbol ekimenak babestea, eta prentsaurrean zeuden jokalariei eskatu zien torneoan lan ona egiteko, Realeko begiraleak egongo direlako eurak jarraitzen.

Hala, abenduaren 29an kategoria txikietako partidua izango dira Ibarra. Alebin, infantil, eta kadete mailako partidua. Eta abenduaren 30ean Real eta Debagoieneko selekzioa lehiatuko dira (Ibarra, 11:00).

ASTE BURUKO ETA GABONETAKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta-Trintxerpe
Domeka. 16:30. Ibarra.
Berio-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Berio.
Urola-Bergara
Zapatua. 18:30. Argixao.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuola-Zestoa
Zapatua. 15:45. Estala.

LEHEN ERREGIONALA

Arizmendi-Soraluze
Domeka. 19:00. Ibarra.
Bergara B-Aretxabaleta UDA B
Zapatua. 17:00. Ipintza.

OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Aurrera
Domeka. 18:00. Mojaitegi.
Aloña Mendi-Orioko
domeka. 16:30. Azkoagaitza.
Bergara-Urola
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

GAZTEAK

Anaitasuna-Aloña Mendi B
Zapatua. 15:30. San Juan.
Arizmendi-Soraluze
Domeka. 11:30. Almen.
Aretxabaleta B-Bergara B
Zapatua. 18:00. Unbe.

OHOREZKO KADETEAK

Tolosa-Bergara
Zapatua. 17:30. Usabal.
Aretxabaleta UDA-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Ibarra.
Lazkao-Arrasate
Zapatua. 12:00. Arizti Handi.

LEHEN MAILAKO KADETEAK

Arrasate-Antzuola
Domeka. 11:00. Mojaitegi.
Bergara B-Aretxabaleta B
Domeka. 17:00. Ipintza.
Urola-Arizmendi
Zapatua. 10:30. Argixao.

KADETEAK, TXAPELDUN FA.

Real-Bergara
Zehaztu gabe.
Umieta-Arrasate
Zapatua. 16:00. Umieta.

OHOREZKO INFANTIL KOPA

Ordizia-Aretxabaleta
Zapatua. 13:00. Altamira.

INFANTIL TXIKIAK

Añorga-Bergara
Zapatua. 12:00. Rezola
Arrasate CD-Dunboa Eguzki
Domeka. 16:00. Mojaitegi.

EMAKUMEZKOEN

GABONETAKO FUTBOL

TXAPELKETA

Abenduaren 29an kategoria txikiak Ibarra futbol zelaian. Abenduaren 30ean, 11:00etan hasita Debagoieneko selekzioa-Real.

LUIS HERZOGEN OMENEZKO

GABONETAKO GAZTE

MAILAKO FUTBOL

TXAPELKETA

Abenduaren 29tik 31ra arte. Bergara, Real, Aretxabaleta eta Eibar izango dira Ipintza eta Agorrosin futbol zelaian.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Lagun Onak
Zapatua. 19:00. Manuel Muñoz.

LEHENENGO MAILA

Azpeitiko-Aretxabaleta
Zapatua. 16:45. Azpeitia.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Soraluze BKE-Hondarribia.
Domeka. 12:30. Labegaraia.

EUSKADIKO TXAPELKETA,

EMAKUMEZKO SENIORRA

Egia Bera Bera-Aloña Mendi
Domekan. 12:00. Donostia.

GIPUZKOAKO BIG. TXAPELK.

Decotena-Bergara
Gaur. 20:15. Zumaia.
Arrasate (atsedena)

KADETEAK, GIZONEZKOAK

Berezoa Aloña Mendi-Karibe
Zapatua. 17:30. Zubikoa.
Ormaiztegi-Arrasate
Gaur. 19:15. Ormaiztegi.
Soraluze BKE-Irongo gaztiak
Domeka. 10:30. Labegaraia.

KADETEAK, EMAKUMEZKO.

Aloña Mendi B-Urola
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

SASKIBALOA

SENIOR GIZONEZKOAK

Soraluze BKE-Bosteko
Zapatua. 16:30. Labegaraia.

SENIOR BIGARREN MAILA

Orioko-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Orio.

GAZTEAK ERRENDIMENDUA

MU A-Hernani
Domeka. 18:00. Iturripe.

GAZTEAK PARTAIDETZA

MU A-Hernani
Domeka. 18:00. Iturripe.

KADETE EMAX. ERRENDIM.

Soraluze BKE-Arri BKL
Zapatua. 12:15. Bergara.

GAZTE MAILAKO OINTXE!

TALDEAREN GABONETAKO

TORNEOA.

Abenduaren 26tik 28ra arte, Iturripen.

BERGARAKO HIRUNAKO

SASKIBALOI TXAPELKETA
Abenduaren 26an, benjamin eta alebinendako, pilotalekuan.

BERGARAKO INFANTIL

MAILAKO GABONETAKO
TXAPELKETA

Abenduaren 29an eta 30ean, infantilak Labegaraia.

ERRUGBIA

SENIORRAK

Arrasate-Hernani B
Domeka. 12:00. Mojaitegi.

ALEBIN ETA BENJAMINAK

Entrenamendu saioa
Domeka. 10:30. Mojaitegi.

ATLETISMOA

SAN SILBESTRE

LASTERKETAK

Oñatin. Abenduak 31. 16:00etan gazteen lasterketa, nagusi-ena. Eskoriatzan. Abenduak 31. 10:30ean haurren lasterketarako dortsal margotzea. 12:00etan 14 urtetik beherako lasterketa. 17:25 Brindisa. 17:30 Helduen herri lasterketa, Manuel Muñoz saria.

PILOTA

SANTAMASETAKO PILOTA

JAIALDIA

Zapatua. 18:00. Uarkape.

ANTZUOLA

Egubakoitza. 19:00 Udak pilotale: Olalde-Atxurbi
Bergara-Gazteleku
Bergara-Hernani
Bergara-Txapagaia.

ARRASATE

Egubakoitza. 20:00. Uarkape:
Arrasate-Gazteleku
Arrasate 2-Igeldo.

BERGARA

Domeka. 16:30ean hasita Gabon Sario finalak jokatu dituzte.

ZIKLOKROSA

OÑATIKO SARIA

Domekan, 10:00etan hasita San Martinen:
10:00 Kadeteak
11:00 gazte eta emakume eliteak
12:00 Masterak
13:15 Eliteak

KIROL SARIAK

OÑATIKO KIROL SARIAK

Gaur. 19:00. Udaletxe.

INDIBA®

activ
ProRecovery



MINA MENDERATU!

Bizkarreko mina, zerbikalgiak, orkatila bihurritzeak, artrosia...

Fisioterapia • Errehabilitazioa • Kirol medikuntza

INDIBA® activ Therapy,

Zainketa eta ongizatea helburu izanik, sendatze prozesua bizkortu eta mina osatzen duen teknologia eta metodologia.

Proba
ezazu
orain!

abian
FISIOTERAPIA ZENTROA

Lapurdi kalea 9, 11 behea ARRASATE • Tel.: 943 79 97 44

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuarte esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

KULTURA

Egoitz 'Pikategi'-k Oñati defendatuko du toberan

Eguazteneko ezohiko osoko bilkura berezian Oñati epaitegira joango dela erabaki dute

MADIER ARREGI | OÑATI

Aho batez onartu zuten alkate eta zinegotzi bereziek Oñatik bere nortasuna eta ohorea defendatu behar duela hilaren 28ko toberan. Bertan, Debagoieneko herriek Oñati epaituko dute inkomunikazio interesatua egotzita. Hala, Oñatiko herria Egoitz Aizpuru *Pikategi*-k defendatuko duela erabaki zen.

Zinegotzi berezien artean, herri mugimenduko eragileak ikusi genituen, guztiak bat eginda: Ganbara, Bertso Eskola, Odol-emaileak, Andraitx, Gazte Asanblada, Herri-erria, Trikitizaleak, Eskola publikoa, Musika Eskola, Txantxiku Ikastola, Elkar Hezi, Aloña Mendi, Oñatz, Pake Leku, Misio taldea eta Txanda.

Bozketa egin ostean, ezohiko alkateak, Jabi Agirrek, herritar guztiak gonbidatu zituen abenduaren 28an Zubikoako pilotalekuan 19:30ean hasita, egingo den epaiketara joateko. "Gauden lekuan gaude eta ez dugu arazorik bailarako beste herriei harremanetan jartzeko, baina gure nortasunari eutsita", nabarmendu zuen alkateak.

Akusazioa herriz herri

Inkomunikazio interesatua oinarri hartuta, garraio publikoaren aitzakia, *Kontzejupetik* herri aldizkaria mantendu izana edota herriko jai propioak izatea ere aintzat ditu akusazioak.

Arrasatek dio Oñati erdi Mondragoen ari dela lanean. Bergarak, oñatiarrek oñatiarrak hartzen



Zinegotzi bereziak eta alkate berezia toberan, Oñati defendatuko duen abokatuarekin batera. | MAIDER ARREGI

dituztela bikotekide gisa umeak ere oñatiarrak izateko. Aramaiok dio 1855ean Gipuzkoan sartzea erabaki zuela Oñatik, eta euskarari kalte egin diola. Leintz Gatzagak, Arabako merkataritza-guneetara joaten direla eta Gatzagan ez direla ezertarako geratzen. Aretxabaletarrek lurraldetasun kontuak dituzte oinarri: Urbia eta Degurixa ez direla Oñati. Eskoriatzak dio oñatiarrek gauza asko ez dituztela onartzen. Adibidez, munduari asko eman dioten bakarrik ez direla. Elgetarrek, Oñati baino inkomunikatuagoak daudela eta inkomunikazio hori, oñatiarrek moduan, aitzakia gisa ez dutela erabiltzen. Antzuolak, ordea, Oñati baino herri euskaldunagoa dela.

Debagoieneko akusazioak prest, Oñatik esku artean defentsarako argudio bikainak dituela aurreratu digu *Pikategi* oñatiarrak.

Aho batez onartu dute abokatuak

Egoitz Aizpuru *Pikategi*-k defendatuko du Oñati. Ez du, gainera, nolanahiko lana izango. "Badakit gogorra izango dela, Debagoieneko herri guztiak Oñatiren aurka arituko dira-eta. Ez dago herri bakar bat ere gure alde egin duenik", azaldu digu *Pikategi* abokatuak.

Oñatiko pregoilariak epaiketa aurrez iragarrita, bere burua eskaini du *Pikategi*-k abokatu gisa. "Ez naiz abokatu *normala*; esan gura dut inoiz ez dudala benetako epaitegi batean abokatu lanak egiteko aukerarik izan; baina esperientzia badaukat, ordea, ordu txikitan tabernetako barra aurrean auzi ezberdinak epaitu ohi ditut-eta. Eta gainera, akusazio benetan gogorrek defendatzen ere ibilia naiz, eskarmentua badut bai horretan", azaldu digu Egoitz *Pikategi*-k, Oñatiko ezohiko abokatuak.



Pikategi abokatuak eta Oñatiko pregoilaria. | MAIDER ARREGI

Gabonetan ere...

2012-2013 IKASTURTEA

Nik maite dut euskara

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net
Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

UDAL EUSKALTEGIAK

Urtarrilean, berriro ere matrikula zabalik



Mayka Makovskiren grina eta bizitasuna zuzenean

Maika Makovski eta Mery May musikariak, abenduaren 28an, Amaian, 20:00etan hasita

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Maika Makovski publikoa aho zabalik eta oilo ipurdiarekin uzten duen artista horietakoa da; barru-barruraino sartzen dena bere sentsualtasunarekin. Konposatu eta abestu egiten du; gitarra eta pianoa jotzen ditu. Nortasun handiko emakumea da, eta nahi duen moduan, bere gustura moldatzen ditu abestiak: grinaz eta bizitasunez.

Mallorcakoa da. Andaluziar eta mazedoniar odolekoa. New Yorken bizi izan zen, eta, orain, Bartzelonan eta Londresen bizi da. *Thank You For The Boots* aurkeztera dator Debagoienara, Arrasatera, abenduaren 28an; eta ez ez da inozentada, egia da.

Vangel Makovski Palman finkatutako multi-instrumentistaren alaba izaki, musikaz elikatu da ezinbestean: Stooges, Damned, The Cramps, Dead Moon, Son House, Skip James, Deltako blueseko beste klasiko batzuk... Ezin dira ukatu, ordea, Prince, Neil Young, Serge Gainsbourg



Abuztuan Makovskik emandako zuzenekoak Cream Pop jaialdian. | INDIELOGIA.COM

eta PJ Harvey-ren influentziak bere estrofa eta gitarra *riff*-etan. Agian, horietako ezer ez da nabarmenduko haren disko berriko abestietan, eta, hala ere, han dago dena, nonbait ezkutatuta, entzuleari iradokitzen, xuxurlatzen, hamar urte barru ere haren soinu-bandan izango dela. Ezin du ukatu, aurkitu du bere helmuga.

Mery May zuzenean

Irlandako odola daukan musikari arrasatear gaztea ere Amaia antzokiko agertokian ikusiko dugu. Danbaka lehiaketako epaimahaiaren kritika bikainak jaso zituen, erakutsitako freskotasunagatik eta dotoreziagatik. Gabonetan grabatuko du bigarren diskoa, Iñaki Bengoaren Shot estudioan.

Gospel doinurik onenak Mississippi Mass Choir taldearen eskutik

M.A. | ARRASATE

Ezagunak dira Arrasaten The Mississippi Mass Choir taldeko kideak. Izan ere, 2006an izan ziren, Arrasateko lehen gospel kontzertua eskaintzen. "Arrasateetik igaro den talde onena izan dela esan dezaket. Gospel munduan kritika onenak dituzte eta talde garrantzitsuena ere bada", azaldu digu Karmelo Alberdik, Kultura teknikariak. "Ikuskizun zoragarria izango da, Kursala ere bete berri dute eta kritika oso onak izan dituzte, gainera", azaldu digu Alberdik. "Nik uste dut orain dela sei urte egon zenak errepikatu egin duela; eta orduan egon ez zenari esango nioke hutsik egin

ezin duen ikuskizun zoragarria izango dela". Hala, kontzertua polita eta borobila izango den bermea duela gaineratu digu Karmelo Alberdik.

Gospel emanaldia domekan, hilaren 23an, Amaian izango da, 20:00etan hasita.

Gospel talde saritua

The Mississippi Mass Choir 1988an sortu zen. Abesbatzak hainbat sari jaso ditu AEBetan, Europan, Japonian eta Latinoamerikan. Frank Williams, Jackson Southernaires ospetsuen kidea da taldearen sortzailea, Mississippiko bihotzean fundatutakoa. David R. Curry da zuzendaria.

Solasaldia 'Kixi' zinemagilearen sekuentzia kuttunenekin Bergarako gaztetxean

M.A. | BERGARA

Domekan ekimen berezi bat izango da Bergarako gaztetxean, 19:00etan. Asier Altuna zinemagile bergararra *-Aupa, Etxe-beste!* eta *Bertsolari-* kartzela zaharrean izango da, gustuko dituen filmen sekuentziak jarri eta komentatzen. "Bereziki markatu nauten pelikula zatiak

dira. Batzuek 30 segundo dute; beste batzuek bost minutu. Zerbaitegatik ahaztezinak diren pelikula zatiak dira: irudi oso berezia dutelako edo errealitateari izugarritzko buelta ematen diotelako: Fritz Lang, Angelopoulus, Fellini.... baita egungo zuzendarien lanetako zati batzuk", dio *Kixi*-k.

Jatetxe Gida



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soralue)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiraleraren (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita



Deabru Beltzak konpainiaren *The Wolves* kale antzerkia. | DEABRU BELTZAK

Deabru Beltzak konpainiaren 'The Wolves' kale antzerkia Bergarako San Martin plazan

Hameligo txirula-jotzailearen istorioan oinarritutako kale antzerkia da

LAIDA BERISTAIN | BERGARA
Txirula-jotzaile horren istorioa oinarri hartuta, Hamelingo txirula-jotzailearen istorio zoragarria aurkezten du Deabru Beltzak taldeak *The Wolves* izeneko ikuskizun horretan.
Efektu berezi ugari eta txongilo artikulatu handi eta sofistikutuek osatutako musika ikuskizun ibiltaria da,

Kale antzerkia Bergarako San Martin plazan izango da ikusgai domekan, 19:00etan.
Duela 800 urte inguru, txirulari batek Hamelingo arratoi inbasioa geldiarazi zuela diote. Arazoa amaituta, ahanzturak irabazi zion beldurrari. Orain, 800 urte geroago, pasarte errepikatzen da. Kasu honetan, txistularia izan beharrean piano-jotzailea

izango da, gizaki bitxia eta ezkerrekoa. Bere musikarekin, hiria otsoen erasoetatik askatuko du; dena suntsituz hurbiltzen diren otsoak.
Hameligo kasuan bezala, behin arazoa amaituta, jendeak piano-joleari zin egindakoa ahaztu egingo du. Piano-jotzaileak, hori ikusita, mendekua hartzea erabakiko du otsoak herrira bueltaraziz.

Aretxabaletako Akordeoi Orkestraren kontzertua

Kontzertuaz gain, erakusketa Loramendin

L.B. | ARETXABALETA
Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak kontzertua emango du Aretxabaletako Arkupeko Zaria aretoan zapatuan, abenduaren 22an, 20:00etan.
Kontzertua bi zatitan banatuta egongo da: lehenengo zatian, Unai Mendikutek eta Maria Zubimendik bakarlarri moduan kantu bana joko dute, eta, horren ostean, Maria Zubimendik eta Maria Mogasek beste abesti bat joko dute batera. Bigarren zatian, berriz, orkestrak joko du. Mota guztietako abestiak joko ditu; besteak beste, soinu-bandak eta Gabon-kantuak.
Aurten orkestraren 20. urterrena ospatzen dela-eta, kon-



Orkestra. | JUANJO OROBENGOA

tzertuak berezitasun bat izango du: kontzertuan zehar, orkestraren hainbat argazki proiektatuko dira. Argazki horiek Loramendiko erakusketan egongo dira ikusgai.

Patata Tropikala antzerki taldearen 'Zapata gorriak' antzezlana Aretxabaletako Arkupeko Zaria aretoan

Domeka honetan, abenduaren 23an, Patata Tropikala antzerki taldeak *Zapata gorriak* antzezlana aurkeztuko du Aretxabaletako Arkupeko Zaria aretoan, arratsaldeko bostetan. Umeei zuzendutako ikuskizuna da, eta sarrera hiru euro kostatzen da. Hain zuzen ere, zapatar batek arruntak ez diren zapatak saltzen ditu; hau da, ezin ditu edonork jantzi. Bada, antzezlana horretako protagonistak zapata horiek jantziko ditu eta, horrela, izugarriko abentura miragarrietan murgilduko da.



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR



Egoitz Uribarren | Pilota entrenatzailea

Egoitz Uribarren, 2007ko herri arteko txapelketako argazkiarekin eta pilota elkartearen kopekin.

LAIDA BERISTAIN

LAIDA BERISTAIN | ARRASATE

Egoitz Uribarren (Arrasate, 1984) Arrasateko Pilota Elkartearen umeen entrenatzailea da. Horretaz gain, azken urte eta erdian pilotako epaile lanetan ere aritzen da Arrasaten eta inguruetan.

Noiz sartu zinen Arrasateko Pilota Elkartearen?

7 urte nituenetik nago elkartearen sartuta. Pilotan jokatzeko hasi nintzen momentuan sartu nintzen Arrasateko Pilota Elkartearen, beste guztiak bezala, baina orain, entrenatzaile eta epaile izanda, gurasoekin eta elkartearen buruekin tratatu handiagoa dut.

Pilotan jokatzeari noiz utzi zenion?

Duela bi urte utzi nion jokalaria aritzeari. Bizkarreko arazo bat izan nuen, hernia txiki bat antze-man zidaten, eta, azkenean, nire bizitza pertsonalean ere eragin egiten zidan min horrek. Bizkarreko mina nuen bakoitzean, hilabete pasatzen nuen minez eta herrenka. Medikuek pilota txapelketak alde batera uzteko aholkatu zidaten, baina, pilota hain gustuko nuen, ez nuen nahi pilota guztiz laga, eta horregatik hasi nintzen umeak entrenatzen.

Noiz hasi zinen epaile lanetan?

Duela urte eta erdi hasi nintzen. Lehenengo urtean atera nuen

"Lorpen garrantzitsuena 2007. urteko herrien arteko pilota txapelketa izan zen, duda barik"

txartelarekin, Arrasaten bakarrik egin nezakeen lan. Aurten, ordea, elkartearen presidentek aholkatuta, maila bat goragoko txartela atera dut, eta horrekin, afizionatu mailan, inguruko herrietan ere egin dezaket lan.

Gazteak entrenatzea zaila da? Gauregungo gazteak pilotan entrenatzea erraza dela uste duzu?

Bai, nik uste dut gaur egun umeen arreta erakartzeko lan handiagoa egin behar dela. Edozerekin oso azkar entrenatzen dira eta kasu egitea lortzeko behin eta berriro errepikatu behar zaie egiteko. Oso independenteak dira eta euren gainean egon behar da norberari arreta jartzea lortu nahi baduzu.

Erraza da Arrasateko gazteak pilotara erakartzea?

Aurten, egia esan, inoiz baino gazte gehiagok eman dute izena; zehazki, 66k. Uste dut azkenengo 20 urteetan izan dugun gazte kopuru handiena dela aurtengoa. Horren arrazoia da Pilota Elkartearen zuzendaria eta ingurukoak oso lan ona egiten ari direla.

Pilota jokalaria moduan zein lorpen lortu zenituen?

Lorpen garrantzitsuena 2007ko herri arteko pilota txapelketa izan zen, zalantzarik gabe. Nik neuk bizi izan dudana finalik onena izan zen. Beste txapelketa batzuk ere irabazi izan ditut, Gipuzkoako txapelketa, esate baterako, beste arrasatear batekin batera, baina garrantzitsuena, duda barik, Gipuzkoa maila osoan herri arteko txapelketakoa izan zen.

Santamarratsaldean pilotalekuan jaialdia ikusten ala tabernaz taberna hobeto?

Jaialdian epaile moduan lan egiteko eskatu zidaten, baina, lagunekin bazkaria daukadanez, ezetz esan nien. Izan ere, astero lagunekin irteterik ez daukadanez, bada, herriko jaietan lagunekin irtetea gustatzen zait.

Gabonetan zer egiteko asmoa duzu?

Lana topatzearekin nahiko arduratuta nabil azken aste hauetan, baina, bestela, eskiatzera joango naiz egun batzuetarako eta gainontzeko egunak familiarekin pasako ditut bazkari eta afarietan. Baina garrantzitsuena lana topatzea da.

Pilotalekutik kanpo beste zein zaletasun dituzu?

